

Euskararen jolas aldia

Hurrengo barikuan hasiko da Euskaraldia, 11 egunez euskararen erabileran jauzi bat emateko ariketa. Ahobizi edo belarriprest txapak jantzita, Durangaldeko milaka lagunek ere parte hartuko dute egitasmoan. • 2-3



LENIOR ELORRIONA

“Taldea Leonekoa den arren, etxeko jendea izango dut inguruan”



Ziortza Isasi Cristobal
Txirindularia • 28

Taberna bateko nesken komunean kamerak topatu dituztela salatu dute Elorrión

Elorrio | Elkarretaratzea egin dute Elorrioko emakumeei elkartasuna adierazteko eta eraso gaitzesteko. • 4



INDARKERIA MATXISTAREN
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK
25

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ
Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550

GERNIKA
Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net / www.alkimax.net



FAROLAK



INFRAGORRIAK



AIRE KANOIA



ERRADIADOREAK



HEZETASUN KENGAILUAK



MOTO BONBAK



BONBA URPERAGARRIAK

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskararen erabilera indartzeko pauso kolektibo bat emango dugu Euskal Herrian. Hizkuntza ohituretan aldaketa ekartzea da helburua, euskara dakienak erabiliz, eta ulertzen duenak entzunez. Milaka lagunek eman dute izena.

Badator Euskaraldia, urratsak emateko jolasa

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Iurretan bizi den Cecilia Paganini antzerkigile argentinarak dioen moduan, jolas bat izango da Euskaraldia, ariketa bat. Ume txikiek jolasteko izaten duten ilusioaren antzera, 11 egunez euskararen aldeko ekintza kolektibo batean parte hartuko dute milaka euskaltzalek, norbere onena emanda. Batzuk ahobizi izango dira, eta besteak belarriprest. Durangaldean ere milaka dira herririk herri izena emanda daudenak, eta oraindik ere apuntatu ahalko da, azaroaren 23ra arte. Egun horretan hasiko da Euskaraldiaren jolasa.

egiten hasia erabaki nuen, eta saiatzen naiz. Jendeak badaki nik euskaraz berba egin gura dudala, eta eurak ere saiatzen dira. Gainera, Berbalagun taldean nabil, eta baita eskolako Gurasolagun taldean ere. Gainera, horrela, jende berria ezagutu dut. Ausartu egin nintzen eta horregatik parte hartuko dut Euskaraldian. Oso motibatuta nago, Zaldibarren euskaraz berba egiteak ilusioa sortzen dit".

gehiago egin behar dudala uste dut, eta Euskaraldia laguntza ona izan daiteke horretan hasteko, martxan jartzeko. Ea klaseetara ere apuntatzen naizen".



SATUR GRACIA IZQUIERDO

Elorrio, jubilatua

"Jende nagusiagaz solasaldia euskaraz mantentzea oso zaila egiten zait"



TXOMIN FUERTES URRUTXI

ABADIÑO, ingeniaria

"Gaztelania asko egiten da; ahalik eta belarriprest gehien lortzea dugu asmoa"

Mexikon jaio arren, euskaldun zaharra da Fuertes. Izan ere, euskara mantentzeko apustua egin zuten etxean. Ahobizi da.

"Mexikon jaio nintzen. Gurasoek txikitatik egin digute etxean euskaraz; aita euskaldun zaharra da eta ama euskaldun berria. Amak gugaz batera ikasi zuen euskaraz berba egiten. Eta 19 urtegeaz etorri nintzen Euskal Herrira bizitzera. Orain Euskaraldia antolatzeke taldean nago eta jende asko motibatuta dagoela ikusten dut. 500 bat lagun daude izena emanda Abadiñon, kopuru polita da. Ea gero zelan irteten den ariketa. Abadiñon gaztelania asko egiten da, eta gure asmoa ahalik eta belarriprest gehien apuntatzea da. Ez da erraza izaten ari, baina saiatuko gara. Maila pertsonalean motibatuta nago, euskara bultzatzeko ariketa itzela iruditzen zait. Baditut nire zalantza pertsonalak, instituzio batzuek eskuak garbitzeko aprobetxatu gura dutela uste dudalako, baina ni oso motibatuta nago. Abadiñon euskaraz bizi naiz ingurukoekin eta, seguruenik, ez dut asko igarriko eragina, baina lanean bai."



ANA CASTRILLO ARRAIZA

Zaldibar, administraria

"Oso motibatuta nago, Zaldibarren euskaraz berba egiteak ilusioa sortzen dit"

Euskararen erabilera berreskuratzeko pausoa eman zuen Castrillok, eta Euskaraldian ahobizi izango da.

"Ahobizi izango naiz, ausartu egingo naiz. Ikasketak euskaraz egin nituen beti, lehenik eskolan eta gero Durangoko institutuan. Ikasi nuen, baina gero ez nuen euskaraz berba egiten. Orain dela 10 bat urte, AEKn apuntatu nintzen hizkuntza berreskuratzeko eta berba egiteko. Maila altua neukan, gramatika asko nekien, baina berba egitea lortzea gura nuen. Orduan, klasetik aparte ere kalean euskaraz berba



CECILIA PAGANINI GONZALEZ

Iurreta, antzerkigilea

"Euskaraldia jolas bat da, eta horregatik hartu dut parte hartzeko erabakia"

2003an etorri zen Euskal Herrira Paganini, Buenos Airestik (Argentina). Belarriprest izango da.

"Lau urtez Bilbon bizi izan nintzen, eta euskara ikasten hasi arren desmotibatu egin nintzen, inork ez zuelako berba egiten. Hona etortzean, berriro ikasten hasi nintzen, baina haurdun geratu nintzen eta ikasketak konplikatu egin zitzaizkidan apur bat. Gero, umeekin lexiko asko neureganatu nuen. Hizkuntza

Eskolara joaten hasi nintzen, baina etxerako lanek eta azterketek nazkatu egin ninduten. Nik lagunekin berba egin gura nuen. Badakit pauso gehiago emateko gogotik egin beharko dudala lan; akaso umeak apur bat heltzen direnean. Hala ere, ez naiz oso lotsatia, eta parte hartzen dudana taldeetan euskaraz berba egiteko eskatzen diet besteei. Gero eta gehiago ulertzen ditut taldeko elkarrizketak.

Euskaraldia jolas bat da, eta horregatik hartu dut parte hartzeko erabakia. Hemen bizi naizenetik, euskara bultzatzeko ezagutu dudana ideiarik onenetariko bat da. Jolas bat da, ez dago onik eta txarrik, eta hamaika egun dira. Badira hileak jolasten nabilela, Euskaraldiaren berri izan nuenetik; eskolako gurasoei ere esaten diet ni belarriprest naizela eta niri euskaraz egiteko. Kosta egiten zaie, baina irribarre egiten dute. Irakasle batek ere esan zidan behin, lehen berba euskaraz berba egiteko, besteak interesa duzula ulertu dezan. Uste dut nahasketa ona dela. Buenos Airesen australiar batek eta belgikar batek bizi nintzen, eta gure etxean ahal zen bezala berba egiten zen. Azkenean beti ikasten duzu, eta garrantzitsua elkar ulertzea da".



Euskaraldia aurkezteko, ekintza ugari egin dituzte herririk herri.



ARACELI ALBERDI URTIAGA

Durango, jubilatua

“Oso erraz ematen dugu amore, euskararen kalterako beti”

Berrizen jaioa, Durangon bizi da aspaldian Alberdi. Kurutzia ikastolako irakasle izan da 40 bat urtez, eta orain jubilatuta dago. Ahobizi izango da Euskaraldian.

"Baserrian jaioa naiz eta gurasoak euskaldunak ziren. Orduan ikasketak ez zeuden euskaraz, eta lanean hasi arte gaztelaniaz ikasi nuen. Hala ere, nire bizimodua euskaraz egiten nuen. Ikasketak amaitu eta berehala zegoen lana.

Hori historiara pasatu arren, orduan horrela zen. Eibarko ikastolan urte bi egon nintzen, eta gero Durangon lanpostu bat eskaini zuten. Bertan hasi eta ekainean jubilatuta arte bizitza osoa hantxe eman dut, 40 bat urtez. Jende asko ezagutu dut Kurutzia. Zapatuan urtemugako jaialdia egin genuen eta egun oso polita izan zen.

Iruditzen zait Euskaraldia saia-kera polita izan daitekeela. Euskaldunok insistitu egin behar dugu. Izan ere, normalean pausoa atzera eman eta gaztelaniara jotzen dugu besteak hizkuntza horretan egitean. Oso erraz ematen dugu amore, euskararen kalterako beti. Durangon, adibidez, komertzio batzuetan ahalegin handiagoa egin beharko luketela uste dut. Gutxienez "gero arte" esan; denok dakigu "agur", "arratsalde on" edo "eskerrik asko" esaten, eta batzuek "hastan luego" erantzuten dizute. Insistitu eta gogoia sorrarazi beharko genieke. Bestalde, oso lasai jokatu dute beti. Euskara gure hizkuntza da, bizi diren lekuko hizkuntza ofiziala. Beraz, errespetu apur bat ere erakutsi beharko lukete. Uste dut Euskaraldia ariketa aproposa izan daitekeela bide horretan pausok emateko".

Euskaraldirako formakuntza tailerretan jendea gogotsu agertu da

11 egun iraungo duen ariketan ahobizi eta belarriprest rola garatzeko aholkuak eman dituzte tailerretan



Irudian, Durangon eginko formakuntza tailer bat, Euskaraldiaren Artekaleko lokalean.

DURANGALDEA • MARKEL ONANDIA

Amankomunazgoak eta udalek sustatuta, zenbait herritan Euskaraldirako formakuntza tailerrak egiten dabilta, Berbaro elkartearen eskutik. 11 eguneko ariketan ahobizi edo belarriprest rola garatzeko aholkuak eman dituzte. Berbaroko kideek azaldu dutenez, jendea Euskaraldian parte hartzeko "prest eta gogotsu" ikusi dute.

Konfiantza sortzea izango da gakoetako bat. "Euskaraldia pasatu ostean, 11 eguneko sortuko diren hizkuntza ohitura berri horiei eustea da gakoa. Hori dela-eta, oso garrantzitsua da sortutako euskarazko hartu-eman berriak atseginak izatea parte-hartzaileentzat", esan dute euskara elkarteek. Horregaz batera, orain arte gaztelaniaz bizitako erlazioetan akordioak adostu beharra ere egongo da. "Elkarrizketa elebidunak iza-

tea, adibidez, oso gauza 'arraroa' da guretzat, baina ingurukoekin horrelako akordioak adostea da lehenengo pausoa".

Ahobizi denak lehen berba euskaraz egin beharko du beti eta belarriprest denak jarrera zabala eduki beharko du.

"11 eguneko sortuko diren hizkuntza ohitura berri horiei eustea da gakoa"

"Oso garrantzitsua da sortutako euskarazko hartu-eman berriak atseginak izatea"

11 egun, 11 aholku



AHOBIZI BAZARA...

1. Lehen hitza euskaraz, argi eta goxo
2. Ahobizi eta Belarriprestekin, euskaraz
3. Ahal bezain natural egin euskaraz, parekoak atekatu itxi nahi izan arte.
4. Belarriprestak zaindu. Batzuk ahalegin berezia egiten ari dira.
5. Elkarrizketa elebidunak ohitura kontua dira.
6. Hitz errazak aukeratu, astiro berba egin.
7. Erdarara pasatzen bazara, hasi euskaraz berriro; ez da ezer pasatzen.
8. Errazenetik hasi: ohiturak norekin aldatu ahal dituzun pentsatu eta berekin berba egin.
9. Elkarrekin komunikatzea da kontua.
10. Eroso sentitzea da garrantzitsua.
11. Gero eta hobeto egingo dugu!



BELARRIPREST BAZARA...

1. Euskaraz hitz egitea gonbidatu.
2. Lehen hitza euskaraz eginez, euskaraz jarraitzeko aukera emango duzu.
3. Zure mugez lasai hitz egin. Konplizeak bilatu.
4. Eskatu errepikatze edo astiro berba egiteko. Ondoko hartuko dute.
5. Erdaraz erantzun dezakezu, lasai.
6. Zalarrik baduzu, galdetu.
7. Elkarrizketa asko laburrak dira, gehiena ulertuko duzu.
8. Errazenetik hasi: ohiturak norekin aldatu ahal dituzun pentsatu eta berekin berba egin.
9. Euskarazko komunikabideak kontsumitu. Gero eta euskaraz gehiago entzun, hobeto!
10. Eroso sentitzea da garrantzitsua.
11. Gero eta hobeto egingo dugu!

Egitaraua

ABADIÑO

-Txapak jaso: 16an Zelaian (18:30-20:00). 18an Matienan (12:30-14:00). 21ean eskoletan (16:00-17:30). 23ra arte Errotan eta Mediatekan (18:30-20:00).

ATXONDO

-Txapa banaketa: 16an plazan. 19tik aurrera udaletxean eta liburutegian.
-Formakuntza: 20an, 18:30an.
-Hasiara: 23an, 19:00etan.

BERRIZ

-Txapa banaketa: 22an, Olatueta plazan, 19:00etan.

DURANGO

-Txapa banaketa Artekalen: 16an (18:00-20:30). 17an (12:00-14:30). 19tik aurrera, goizean eta arratsaldean.

ELORRIO

-Inskripzioa plazan: 16an eta 22an (19:00-20:30). 18an (12:00-14:00). Txapa banaketa AEKn.
-Formakuntza ahobizientzat: 20an, 19:00etan Iturrin.
-Ekitaldia: 23 iluntzean.

GARAI

-Inskripzioa: 16an, 19:30ean udaletxe aurrean.

IURRETA

-Mahaia Askondon: 16an, 19:00etan. Klowna eta Oxabi.

IZURTZA

-Inskripzioa astegunetan, udaletxean eta liburutegian.

MALLABIA

-Mahaia: Azaroaren 16an, 19:00etan plazan.

MAÑARIA

-Inskripzioa: udaletxean eta liburutegian.

OTXANDIO

-Inskripzioa plazan: 16an, 18:00etan. 17an, 11:00etan.

ZALDIBAR

-Txapa banaketa: 16an, udaletxean plazan (19:30-20:30).
-Hasiara kantuz: 23an, 19:30ean.

ZORNOTZA

-Txapak jantzi: 22an, 19:00etan Euskal Herria plazan.
-Mahaia eta murala: 23an, 18:00etan.



Ekainean egindako elkarretaratze bateko argazkia.

Elorrioko erdiguneko taberna bateko nesken komunean kamerak topatu dituztela salatu dute aste honetan

Elorrioko emakumeei elkartasuna erakusteko eta eraso gaitzesteko, atzo iluntzean elkarretaratzea egin zuten herriko plazan, Elorrioko Mugimendu Feministak deituta

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Taberna bateko nesken komunean kamerak topatu zituztela salatu dute Elorrion. Astelehenean, sare sozialetatik zabaldutako bideo batean eman zuten berria.

Herri erdigunean dagoen taberna batean kamera bat topatu zuten uztailean, eta orain gutxi, beste bat. Bideoan azaldu zuten, herriko erdigunean dagoen tabernako arduradunek pausoa eman dute eraso eteteko eta salatzeke. Ertzaintzak, berriz, berria baieztatu eta gizonetako bat ikertu eta inputatu dutela jakitera eman du.

Albiste jakin bezain laster, eta berria kontrastatu ostean, Elorrioko Udalak indarkeria matxistaren

aurkako protokoloa aktibatu zuen. "Sortzen den informazio osoa jasotzeko eta erantzuna koordinatzeko aktibatu dugu", esan zuten udaleko kideek. Horrez gain, eraso gaitzesteko, adierazpen instituzionala kaleratu zuten. Bertan adierazi zuten, eraso matxista horregaz emakumeen intimitatea urratu da eta hori Giza Eskubideen kontrakoa da. "Elorrioko Udalak ez du onartuko erasotzailearen inpunitate sozialik", esan dute.

Elkarretaratzea plazan

Elorrioko emakumeei elkartasuna erakusteko eta eraso gaitzesteko, elkarretaratzea egin zuten atzo Elorrioko Mugimendu Feminis-

Uztailean kamera bat topatu zuten emakumeen komunean, eta orain gutxi, beste bat

Kamerak jarri dituen gizona ikertu eta inputatu egin dutela jakitera eman du Ertzaintzak

tak deituta. "Elorrioko emakume guztion aurkako eraso argia da, eta erantzuna ere kolektiboa da", esan zuten mezuan.

Elorriarrek 6,4ko nota ipini diote udalaren gestioari, eta gobernuak pozik hartu du emaitza

Aztiker erakundeak 376 inkesta egin ditu udalaren gestioa eta etorkizunerako proiektuak baloratzeko; %50entzat kudeaketa ona da, eta %26rentzat oso ona

ELORRIO • MARKEL ONAINDIA

6,4ko notagaz, herritarren azterketa gainditu du Elorrioko Udalak. Gestioaz balantzea egiteko eta etorkizunerako lehentasunak argitzeko, Aztiker erakundeak inkesta bat egin du udalarentzat, 376 herritarri galdetuta. Idoia Buruaga alkateak pozik hartu ditu emaitzak, eta balorazio "oso positiboa" egin du.

Inkestaturen %26rentzat oso ona (8-10) izan da udalaren gestioa, %50entzat ona (6-7), eta %24rentzat txarra (0-5). %19,9rentzat udala badabil herriko arazoak konpontzen, eta %44k usate du badakiela arazoak konpontzen, baina denbora gehiago behar duela. Ostera, %20,1 dira arazoak konpontzen ez dakiela diotenak. "%64rentzat herriko arazoak konpontzeko gai garela ikusi da", azpimarratu du Buruagak. Gobernu taldeak urteetako ikuspegi globalagaz eta herrita-

ren iritzia jakinda gestionatzen duela esan du, eta denbora behar izan arren, "emaitzak hobek" direla. Bestalde, udalak eskaintzen

Idoia Buruaga: "%64rentzat herriko arazoak konpontzeko gai garela ikusi da"

dituen zerbitzuekin gustura azaldu dira inkestaturen %73,1.

Etorkizunerako proposatutako ideiek harrera ona izan dute orokorrean. Adibidez, %84,4k ondo ikusi dute eskola eta bertako patioa konpontzea. Herriko arazo nagusiei dagokienez, aipagarria da ez dela bat nabarmendu. Puntuaziorik altuena jaso duena garraio publikoarena da, %8,1egaz. Buruagak azaldu du Aldundiari hobekuntzak egiteko eskatzen diotela elkartzen diren aldiro.



Inkestaturen %73 gustura daude udalak eskaintzen dituen zerbitzuekin.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko azaroaren 16a
17. urtea - 742. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

IURRETA • MARKEL ONAINDIA

EH Bilduren eskutik paper fabrikaren isurketak argitara atera eta gero, barikuan Eusko Legebiltzarreara heldu zen gaia. Mikel Otero alderdiko parlamentariak egoeraz azalpenak eskatu zizkion Iñaki Arriola sailburuari. Honen arabera, URA agentziak isurketa egiaztatu zuen apirilaren 24an, eta ordutik birritan eskatu dizkio neurriak enpresari. Baina, egoerak berdin jarraituta, fabrikari espedientea zabaltzea proposatu zuen agentziak uztailean. 90eko hamarkadan, fabrikaren eta gasolindegia artean zegoen hondakindegia bat estali zuten, eta hortik iragazi dira gai kutsakorrek Ibaizabal errekarara.

Arriolaren esanetan, apirileko errekerimenduen ostean, enpre-

URA agentziak isurketa egiaztatu zuen apirilaren 24an, eta ordutik birritan eskatu dizkio neurriak

sak erantzun zuen aldiro-aldiro kontrolak egiten dituztela isurketa gertatu den hondakin-gunean, baita likidoa erretiratu ere. Baina maiatzean egoera bere horretan zegoela nabaritu zuten URAko arduradunek, eta berriro errekerimendua egin zuten. Izan ere, likidoaren frogara horretan Ph-a 12,23an neurtu zuten, araztegi baterako gehieneko muga 9,5ekoa denean. Horren ostean, enpresak jakinarazi zuen kanpo-azterketa bat eskatu zuela. Baina URAkoek arazoa ez zela konpondu ikusi zuten uztailean;

Paper fabrikarentzat espedientea proposatu du URA agentziak, Ibaizabaleko isurketengatik

Barikuan gaiaren inguruko azalpenak eman zituen Iñaki Arriola sailburuak, Legebiltzarrean egondako eztabaidan



Ibaizabal errekan joan zen asteen ere ikusi zitekeen isurketa, EH Bilduk erakutsitako argazkiak islatzen zuenez.

likidoa hamabi lekutatik ailegatzzen zen Ibaizabalera.

EH Bilduk Iurretan emandako prentsaurrekoan kontatu zuen maiatzean jakin zuela isurketen be-

Arazoa ez zela konpondu ikusi zuten uztailean; likidoa 12 lekutatik heltzen zen Ibaizabalera

rrri, herritar batek abisatu eta gero. Jaurlaritzari helarazi, eta sei hileko epearen ostean gaia argitaratzea erabaki du, bere ustez ez duelako "ezer" egin egoera konpontzeko.

Joan zen asteen ere isurketak topatu zituzten alderdiko kideek. Legebiltzarreko saioan, Arriolak erantzun zuen URA agentziaren frogek

Gaia azaleratu du EH Bilduk, bere ustez Jaurlaritzak ez duelako "ezer" egin konpontzeko

URA agentziaren frogek Lakuatik lan egin dela erakusten dutela erantzun zuen Arriolak

Lakuatik lan egin dela erakusten dutela, eta hurrengo egunetan ere horretan jardungo dutela.

Airea hobetzeko neurriak

Bestalde, sailburuak iragarri zuen Smurfiten ingurumen-baimena irailaz geroztik eguneratzen ari direla. Teknologia berriak txertatuz, airera botatzen diren partikulak gutxitzea lortu gura dute, aire kalitatea eta usaina hobetzeko. Horretarako, kutsaduraren muga-balioak ere murriztu egin dizkiote.

Euskal Herriko sei garagardogile batuko ditu Iurretako II. Beer Azokak

Abenduaren 8an, Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan ekoiztutako sei garagardo dastatu ahalko dira

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Abenduaren 8an izango da Iurretako II. Beer Azoka, eta iazko arrakasta errepikatzea espero dute antolatzaileek. Garagardo azoka 12:00etan zabalduko dute eta gauerdia bitartean, Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan ekoiztutako sei garagardo mota dastatzeko aukera izango du Askondora bertaratzen denak. Garain egindako Garai Brewing Company garagardoa eta Mungiaiko Boga izango dira Bizkaia ordezkatuko dutenak; Elgetako Baobeer-ek ordezkatu du Gipuzkoa eta, Araba, Murgiaiko Saltus garagardoak.

Nafarroatik etorriko dira Burgin ekoiztutako Xorta garagardoa eta Sesman ekoiztutako Brewing Co. Seiak probatzeko aukera egongo da 13:00ak arte egingo diren dastaketa gidatuetan. Zurituak eskainiko dituzte, euro batean. Umeentzat talo tailerra egongo da eta 12:30ean hasiko da. "Kalitatezko jana eta edana sustatzeko" pintxoak ere eskainiko dituzte eguerdian, gaineratu dutenez.

19:00etan, Gonzalo Portugal barlarlari akustikoak saioa eskainiko du, eta 20:30ean, Los Jaimones taldeak berotuko du giroa. Dj-ak ere egongo dira Iurretako Askondoko



Liher Aiertzaguena Iurretako Jai Batzordeko kidea eta Ekaitz Alberdi Garai Brewing Company enpresako arduraduna.

Iurreta Plazaratu dinamika sortu du herritar talde batek, "herria biziberritzeko beharra" ikusita

Bigarren Eskuko Azoka antolatu dute abenduaren 2rako, 10:00etatik 14:30era, Aita San Migel plazan



Iurreta Plazaratu dinamika joan zen asteburuan aurkeztu zuten, Aita San Migel plazan.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako hainbat belaunalditako dozenaka lagun eskutik Iurreta Plazaratu dinamika jaio da. Antzeko kezkek bultzatuta elkartu dira hilabeteetan, eta "herria biziberritzeko beharra" ikusi dute. Egunerokoan, aisialdi, kultura eta ekintza sozialen falta sumatu dute,

eta "horrek harremanetan eta herri-giroan eragina duela" uste dute.

Plazan batzen dira, bere garaian "herriko bihotza" izan zen gunean, "jolaserako, ekintzarako eta harremanetarako erdigunean". Hala ere, "denbora pasatu ahala plaza husten joan da, bizia galtzen, eta herrian igarri egiten da", dinamikaren bul-

tzatzaileen berbetan. Herriari zabalik zegoen Abadetxea erretzeak ere izan du eragina horretan, diotenez. 2006an gertatu zen eta oraindik hutsik dago. Kezka hori herritarrekin konpartitu dute udaz geroztik, eta iritzia ere eskatu dute.

Prozesu horren ondorioz, prest dute lehen ekintza, herria biziberri-

tzeko bidean: Bigarren Eskuko Azoka egingo dute abenduaren 2an, 10:00etatik 14:30era, plazan. Doan da izen-ematea, Gau Argi eta Ibaiondo tabernetan edo iurretaplazaratu@gmail.com helbidean. Azaroaren 29aren aurretik apuntatu gero, Iurreta Plazaratuk ipiniko du mahaia. Musika eta txosna egongo dira.

Datorren urterako, zabor bilketaren tasa %2,2 igotzea erabaki dute Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKARI

2019rako, zerga eta tasarik gehienak bere horretan utzi ditu Berrizko Udalak, salbuespen bi eginda: zaborrarena eta ekonomia jardueren gaineko zerga.

Joan zen astean aho batez onartu zituzten 2019rako ordenantza fiskalak, EAJ eta EH Bilduren botoekin. Gobernu taldeak jakitera eman zuenez,

EAJren eta EH Bilduren botoekin onartu zituzten 2019rako Berrizko ordenantza fiskalak

2015etik izoztuta egon den ekonomia jardueren gaineko zerga ere igotzea erabaki dute

zabor bilketaren tasa %2,2 igoko dute datorren urterako.

Horrez gain, 2015etik izoztuta egon den ekonomia jardueren gaineko zergan ere igotzea erabaki dute. "Igotzea aplikatu aurretik zonalde industrialak zonifikatu ditugu", esan zuen Orland Isoird alkateak. Bestalde, Karmen Amezuak esan zuen ez dutela trabarik izan landu duten proiektu hau onartzeko.

Gaurtik aurrera zabalik dago Durangoko JAEDen standa, zozketa solidarioan 60.000 txartel saltzeko esperantzaz

Citroen C3 autoa da zozketako sari nagusia; aterako duten dirua JAEDen ekintza solidarioarako erabiliko dute



Citroen C3 autoa atzo bertan ailegatu zen Andra Mariko standera.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Prest dago JAEDek Andra Marian ipintzen duen standa. Gaur altxatuko dute pertsiana, eta urtarrilaren 6ra arte zozketa solidarioan parte

Bidaiek, bizikleta elektrikoa, Iphonea eta Imac ordenagailua aipatu daitezke

hartzeko gonbitea egingo dute. Iaz bezala, 60.000 txartel saltzeko esperantza dute antolatzaileek. Txartel bakoitza 1,5 euroan salduko dute, eta urtarrilaren 6an egingo dute zozketa, 18:00etan, Andra Marian. Citroen C3 autoa da zozketako

sari nagusia, Gauran hartutakoa. Horregaz batera, Kanariar Uhartetara eta Andaluziara bidaiak, bizikleta elektrikoa, Iphonea eta Imac ordenagailua aipatu daitezke.

Arazo ekonomikoak dituzten familia askori laguntza emateko egiten du lan JAEDek

Gainera, Eroskiko otzara bat, Kobikan afari bat, Mancisor eta Tabira dendetako erlojuak, eta Durango Kiroletako bonuak ere jaso dituzte, besteak beste. Hala ere, nabarmenezkoa da JAEDek erosten dituela produkturik gehienak, 30.000 euroko inbertsioa eginda.

Zozketagaz aterako duten dirua JAEDen ekintza solidarioarako izango da. Arazo ekonomikoak dituzten familia askori laguntza emateko egiten dute lan JAEDeko 25 bat boluntarioek, elikagaiak ematen eta argindarra ordaintzeko laguntzen.

Durango estazioko lurri buruzko galdeketa eskatzeko sinaduren analisiak abenduaren 3ra arte iraun dezake

Erabaki taldeak dio gobernu taldea prozesua "nahita" luzatzen dabilela; Irigorasen esanetan, sinadura gehiago aurkeztu izanak ekarri du luzapena

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Estazioko lurretarako diseinatu-tako planaren polemikak beste atal bat ekarri du azken egunetan, telesail onenen antzera. Galdeketa aldeko Erabaki plataformak sinaduren analisi prozesua nahita luzatzea egotzi dio gobernu taldeari, eta hori "alderdi interesen-gatik" dela dio. Bere esanetan, 2.595 sinadura balioztatuta daudenez nahikoa da galdeketa deitzeko, hautes-eroldaren %10 behar dela dio eta. Baina Aitziber Irigoras alkatearen esanetan, "sinadura gehiago aurkezteak luzatu du prozesua".

Uztailean, Erabakik 3.033 durangarren sinadurak aurkeztu zituen galdeketa eskatzeko, eta udala horiek egiaztatzen ibili da, Irigoras azken osoko bilkuran azaldu zuenez. Mekanizatu arren, azkenean eskuz egin behar izan dute azterketa teknikariek. Sinaduretatik, 2.595 hartu dituzte ontzat. Gainerakoak erroldatu bakoak eta adin txikikoak ziren batez ere. Erabaki plataformak 700 sinadura baino gehiago sartu ditu irailean eta urrian, eta azaroaren 21era arte bilketan jarraituko du. Irigoras dio hori dela prozesua luzatu izanaren arrazoia. Bere esanetan, legeak beste hilabete eta erdiz luzatzeko aukera ematen du.

Ondorioz, gehienez abenduaren 3ra arte iraungo du prozesuak. Gero, behin sinadurak balioztatuta, balizko galdeketa formatua eta data erabaki beharko lirakeke.

ETS zigortzeko eskaria

Bestalde, ETS zigortzea gura du Erabaki taldeak, estazio inguruko obrak "baimenik barik hasteagatik". Tren estazio zaharra bota eta gero, inguru hori urbanizatzeko

Erabaki plataformak 700 sinadura baino gehiago sartu ditu irailean eta urrian

lanak hasi zituen ETSk. Baina Erabakitik salatu zuten biribilgune bat egiten zebiltzala, gerora estazioko eremu zabalean garatuko den proiektu osoan kokatzen dena. Arrazoia ematen dien adierazpena heldu ei da udalera. Lanak eteteko dio, baina amaituta daude jadanik.

Bestalde, tren geltokiko sARBIDE eraberrituan sortutako itoginak konpontzea eta aldapa saihesteko eskailera mekanikoak jartzea proposatu zuen EH Bilduk osoko bilkuran, baina Herriaren Eskubideak soilik babestu zuen.



Estazioko lurren planak 550 etxe eta aisialdirako guneak aurreikusten ditu. Biribilgune erdi eginda dago.

Gune biosasungarria ipini dute Aurora Abasolo parkean

60 urtetik gorako herritarrentzat gomendagarria den makineria ipini dute, gimnasia egin ahal izateko

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Aurora Abasolo parkean, Musika Eskolaren ondoan, gune biosasungarri bat ipini du udalak. Gimnasia egiteko hainbat tresna daude, nagusiei sasoiaren egoten laguntzeko. Durangoko adinekoekin hiri atsegina proiektuaren parte da ekimena. Pilar Rios Gizarte

Ekintza arloko arduradunaren berbetan, ezarritako makineria 60 urtetik gorako herritarrentzat gomendagarria da, mugikortasunean eta malgutasunean lagunduko dielako.

Gunera ezartzeko, guztira, 18.150 euroko inbertsioa egin du Durangoko Udalak.



Gizarte Ekintza Saileko arduradunak, zenbait nagusigaz, aurkezpenean.



BIDEA EGINEZ

Hezkuntza ezagutzak, balioak, ohiturak eta jokatzeko moduak transmititzen dituen bi norabideetako gizarte-prozesua eta horren emaitza da. Aldakorra eta amaigabea; gorabehera, bihurtune eta bide-gurutzez jositako bide zirrargarria... haurdunaldian hasi eta heriotzarekin bukatzen dena.

Ibilbide horren zati bat Gurean egingo dute ikasle askok eta bizitako esperientzia esanguratsua izan dadin, behar izango dituzten tresna, baliabide, gaitasun eta balioak, bizkar-zorroan eramateaz arduratzen gara San Antonio ikastetxean.

Horrela bada, ikaslea ardatz izanik, bere beharren arabera diseinatu dugu gure Hezkuntza Proiektua. Hau, lankidetzan, solidaritatean eta sormenean oinarrituz; etorkizunean gure ikasleek behar izango dituzten gaitasunetan hain zuzen ere.

Zeregin honetan, lanerako erabiltzen ditugun metodologiak, berritzaileak izateaz gain, kooperazioa bultzatu eta aktiboak izan behar dute ezinbestez. Ikasketa Kooperatiboak eta Proiektuetan Oinarri-

tutako Lanak aukera paregabea eskaintzen digute helburuak lortu eta ikasleen gaitasunak garatzeko, ikasketa prozesua esanguratsua bilakatuz.

Bidean zailtasunak aurkitu daitezkeenez, hauek gaintitu eta segurtasunez aurrera egiteko ere prestatzen ditugu ikasleak. Maitasuna, bakea, norberaren ezagutza, egiten ari garen horretan arreta osoa jartzea, frustrazioari aurre egitea eta ahaleginari garrantzia ematea dira, oztipoak gaintzeko eta helmugara ziurtasunez iristeko, gurean garatuko dituzten balioak.

San Antonio ikastetxean familia bat gara, ikasleen garapena eta ongizatea hurbiletik zaintzen duen ikasle, guraso, langile, irakasle eta ikasle ohiez osaturiko familia handi bat. Horrela bizi eta sentitzen dugu gure proiektua eta jarrera horrekin aurre egingo diogu, pausoz pauso, urratsez urrats; bakarrik arinago heldu arren, badakigulako elkarrekin askoz urrunago iritsiko garela.

Oier Urigoitia
Zuzendaria

Pradera konposatzaile eta organistari buruzko liburua aurkeztuko dute

MALLABIA • J.D.

Emilio Pradera musika konposatzailearen eta Mallabiko elizako organistaren gaineko *Emilio Pradera, gure melodia* izeneko liburua aurkeztuko

Mallabian domeketako mezetan abesten dituzten kantu asko Praderak konposatutakoak dira

dute datorren asteko eguenean, 19:00etan, Kontzeju Zaharrean. Liburua CD batez lagunduta dator. Testuak Felipe Zelaietak idatzi ditu. CD formatua Praderari zein bere gertuko jendeari egindako elkarrizketek osatzen dute, Valentin Mugarzaren eta Mikel Zelaietaren lanari esker.

Pradera mallabitarrak 91 urte ditu eta bere ibilbide luzean hainbat pieza konposatu ditu; *Mallabiko Ama*, esaterako. Domeketako mezan abesten dituzten kantu asko bereak dira.

Udaleko gaien gaineko azalpenak eman dituzte Tokiko Agenda XXI batzarrean

IZURTZA • J.D.

Tokiko Agenda XXIen barruko batzarra egin zuten martitzenean Izurtzan. Batzar horiek herritarren proposamenak jasotzeko eta udaleko gaien inguruko azalpenak emateko erabiltzen ditu urtero udalak. Hamabi herritar batu ziren batzarrean. Gaztelekuaren gaineko azalpenak eman zituzten, besteak beste. Proiektua eginda dagoela azaldu zuten eta lanak datorren urtean egiteko asmoa dagoela. Horrela, iazko Tokiko Agenda

Besteak beste, Gazteleku proiektuaren gaineko xehetasunak eman zituen udalak

XXIean herritarren partetik irteerako eskaera bat errealitate bihurtuko dute.

Neguko euriteek bideetan eragindako kalteak konpontzeko azterketa tekniko bat egiten dabilazala ere azaldu zuten.

Lantegi Batuakeko langileek protesta egin dute hitzarmenaren defentsan

LAB, ELA, UGT eta CCOO sindikatuek babestu dituzte langileen eskaerak



Abadiñon elkarretaratzea egin zuten langileek azaroaren 12an.

ABADIÑO • M.O. / A.M.

Lantegi Batuak enpresako langileak protestan daude lan-hitzarmen "duin" baten eskean. Bizkaian 2018ko urtarrilean hasi ziren negoziaketaz, baina oraindik ere ez dago akordiorik. Ondorioz, protesta egiten hasi dira. Langileen ordezkariak berbetan, enpresak proposamen "laburra eta erridikularia egin du", eta ez daude ados. Enpresaren funtzioa aniztasun funtzionala duten pertsonen lan munduan sartzen laguntzea da.

Azaroaren 12an elkarretaratzea egin zuten langileek Abadiñon, eta hurrengo egunean, hilaren 13an,

Abenduan manifestazioak egingo dituzte Bilbon, eta abenduaren 20an egun osoko greba bat

beste bat egin zuten Zornotzan. Bizkaiko beste lau herritan ere mobilizazioak egitekoak ziren. Hitzar-

menik ez egotekotan, abenduan manifestazioak egingo dituzte Bilbon, eta abenduaren 20rako egun osoko greba iragarri dute langileen ordezkariak.

Uztaileko aurrekaria

Urtarrilean negoziazioak hasi zirenetik, hainbat protesta egin dituzte langileek. Uztailean, adibidez, manifestazioa egin zuten Bilbon. 2.200 lagunek dute lan kontratua Lantegi Batuak, eta guztientzako hitzarmen duina gura dute.

Frontoian kirolgunea egiteko lanak hilabeteren barruan hasiko dira

Pasilloa dagoen tokian gela berri bi sortuko dituzte, bakoitza 53 metro karratukoa. Kanporantz aterpe bat sortuko dute

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko frontoian kirolgunea bat sortzeko lanak hilabeteren barruan hasiko dira eta Indenort enpresak egingo ditu. Aurkeztutako bost eskaintzen artean enpresa honek jaso du baloraziorik onena kontratazio mahaian. Eskaintza ekonomikoa 167.000 eurokoa izan da, BEZ barik.

Frontoiko lehenengo pisuan, pasilloa zegoen tokian, gela berri bi sortuko dituzte. Gela bakoitzak 53 metro karratu izango ditu. Gainera, frontoiaren kanpoalderantz aterpe bat sortuko dute, alde batek bestera. 2019 hasieran prozesu parte-hartzaile bat egingo dute herritarrekin, espazio berriei zer

nolako erabilera eman pentsatzeko. Azken udalbatzarrean EH Bilduren aldeko botoekin esleitu zituzten lanak. EAJk kontra bozkatu zuen. "Premia handiagoak ikusten ditugu, aparkaleku bat esaterako", adierazi zuen Jose Jabier Elkoroiribe zinegotziak. Endika Jaio alkatetik (EH Bildu) jeltzaleen ezezkoa

kritikatu zuen. "2018ko aurrekontuei eta ekainean proiektuari egindako kreditu gehikuntzari baiezkota eman zioten. Zer aldatu da ordutik hona? Orduan beharrezana zegoen eta orain ez? Ez dute ezer esan azken unera arte, ez dute proposamen bakar bat egin". Jeltzaleen "utzikeria" salatu zuen.



Lanak amaitzean frontoia zelan eratuko den erakusten duen irudia.

Gazteentzako 'Abadiño Ezagutzen' lehiaketaren IV. edizioa martxan dago

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoren ezagutza eta euskararen erabilera hobetzeko asmoagaz egiten da 'Abadiño Ezagutzen' lehiaketa. Aurten goa laugarren edizioa du eta ikasle zein gurasoen parte hartzea sustatzen da. Herriko hiru eskoletan egiten da lehiaketa: Traña-Matiena eta Zelaieta Herri Eskoletan (LHn 2.en eta 3.en zikloetan), eta institutuan (DBH osoan). Azaroaren 23a izango da galdera sorta entregatzeko

Azaroaren 23a da galdera sorta erantzunekin entregatzeko azken eguna

Irabazleen artean gabonetako hiru otzara zozkatuko dituzte abenduaren 3an

azken eguna. Gutxienezko galdera kopuru bat ondo erantzuten duten ikasleen artean, herriko produktuekin eginiko hiru gabon otzara zozkatuko dituzte, eta abenduaren 3an Euskararen Egunaren harira egingo diren ekitaldiekin batera egingo dira sari banaketak.

Durungaldeko pentsiodunek eskualdeko manifestaziora deitu dute datorren barikurako

Durangon egingo da mobilizazioa, 18:00etan, Andra Mariko elizpetik hasita

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Durungaldeko pentsiodunak motorrak berotzen dabiltza azaroaren 23ko mobilizaziorako. Izan ere, eskualdeko manifestaziorako deia egin dute. Durangon egingo da, 18:00etan, Andra Mariko elizpetik hasita.

Hileak dira "pentsio duinen" aldeko borrokan astelehenero kalera irteten hasi zirenetik. Asteleheneran bertan, dozenaka lagun ikusi ahal izan ziren Iurretako protestan, adibidez. Herririk herri hainbat

Hileak dira "pentsio duinen" aldeko borrokan astelehenero kalera irteten hasi zirenetik

herritar batzen dira plazetan, eta herrialdeko mobilizazioak ere egin dituzte. Orain, eskualdeko mobilizazioa prestatzen dabiltza, hilaren 23an Durangoko kaleak hartuko dituen hain zuzen.

Espainiako Gobernuak pentsioen igoera 0,25ekoa izango zela iragarri zuenean hasi ziren protestak. Tartean gobernu aldaketa egon da, eta orain hilabete Magdalena Valerio ministro sozialistagaz batzartzeko aukera eduki zuten pentsiodunek. Pentsioak KPIaren arabera igoko direla berba eman zuten, baina beste eskariak, alarguntasunarena eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioarena, ez direla posible adierazi zuten ministroak.



Iurretan Askondo kalean elkartzen dira astelehenero, 12:00etan.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua &
NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA BEROGINTZA GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA BEROGINTZA - AIREA MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO
944 071 791

Zurgintza

ATERPE ARROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Zabalik dago 2018ko nekazaritza eta artisautza azokan izena emateko epea

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abenduko lehenengo domekan nekazaritza eta artisautza azoka egiten da urtero Atxondon. Aurten ere bertan postua jarri gura duten ekoizleek aurrez

Erakusmahaia jartzeko izen-ematea azaroaren 23a baino lehen egin beharko da, udaletxean

izena eman beharko dutela jakitera eman du udalak, ohar bidez. Artisau eta baserriko produktuen azokan erakusmahaia jarri gura guten ekoizleek azaroaren 23ra arte dute udaletxean izena emateko epea.

Garaiko zenbait auzobide konpondu ditu udalak, 30.000 euro inbertituta

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Udalak herriko zenbait auzobide konpondu ditu azken asteetan, 30.000 euro inbertituta. 2018ko udal aurrekontuan txeretatutako inbertsio bat da, pilotalekuko teilatuaren konponketagaz batera esanguratsuenetakoa. Obrak azken egunetan amaitu dituzte. Berritutako auzobideak Solabiskerrerakoa, Emaldi eta Zelaia baserrietarako eta Elizabarritik Iturburu eta Elizburura doana izan dira.

Hilaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira literatur lehiaketarako lanak

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Gazte Asanbladak literatur lehiaketa antolatu du eta azaroaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira lanak. Liburutegiko edo eskolako postontzietan utzi daitezke. Sortzaileei askatasuna utzi diete eta ipuinak, olerkiak, mikroipuinak, bertsoak... aurkeztu daitezke. Urteak dira Otxandion literatur lehiaketa bat antolatzen ez dela eta, horri irtenbide bat emateko, aurten literatur lehiaketa egitea erabaki dute.

Azaroaren 6tik greban dira Inyectados Gabi eta Galter enpresetako langileak

Besteak beste, enpresa-hitzarmena eskatzen dute Zaldibarko enpresa bietako langileek



Azaroaren 9an, langileek manifestazioa egin zuten.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

"Zuzendaritzak prekarietatean mantendu gura gaitu, ez du batere asmorik langileen lan baldintzak inolaz arautzeko", adierazi zuten Inyectados Gabi eta Galter enpresetako langileek azaroaren 9ko manifestazioaren ostean. Izan ere, azaroaren sei az geroztik greba mugagabeen daude Zaldibarko enpresa bi hauetako langileak. Besteak beste, enpresa-hitzarmen bat

Aurretik, uztailean greba egun bat egin zuten; eskakizunak bete artean jarraituko dute grebagaz

Hainbat herritarren babesa jaso dute langileek greba abiatu dutenetik

sinatzea eskatzen dute. Enpresaren kudeaketa "eskasaz" ere kexatu dira. Horrez gainera, aldi baterako kontratua duten langileen baldintzak hobetzeko eskatu dute. Uztailean greba egun bat egin zuten langileek, eskakizun berdinekin. Hain zuzen ere, zuzendaritzak haien eskakizunak kontuan ez hartzeagatik abiatu dute greba.

Txalaparta, irrintzia eta Euskal Herriko beste hamaika instrumentu ikasteko aukera, Etxanon

Askotariko tailerrek, musika emanaldiek eta erakusketa batek osaturiko ekitaldi sorta antolatu dute Zornotzan

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herriko instrumentu tradizionalen buruzko ekitaldi sorta antolatu du Etxanoko Andra Mari

noko eskolan. Txalapartaren eta tarrañuela eta kañabera instrumentuen inguruko tailerrek izango dira hurrengo egunetan. Musika kontzertuak dira beste osagai bat. Hutsun taldeak Txalaparta Hutsa ize-

neko zuzeneko didaktikoa eskainiko du azaroaren 23an, eta Juan Mari Beltranek, Ixiar Jauregik eta Errege Beldak Hots-Larretan izeneko kontzertua emango dute azaroaren 24an, Etxanoko elizan. Erakusketa

bat ere antolatu dute. Gerora musika instrumentu bihurtu diren sasoi bateko erramintek osatuko dute erakusketa, 25 minutuko dokumental batez lagunduta (egitarau osoa Agenda atalean ikusgai).

Juan Mari Beltranek, Ixiar Jauregik eta Errege Beldak kontzertua eskainiko dute

Berri elkarteak azaroaren 22tik 25erako. Besteak beste, tailerrek, musika emanaldiak eta erakusketa bat egongo dira Etxanon.

"Urtero trikitixa, pandero edo dantza ikastaroak antolatu izan ditugu. Gauza batek bestera eraman du eta gai baten inguruko ekitaldi sortak egiten hasia pentsatu genuen", adierazi du elkarteko kide Pablo Monasteriok.

Irrintziak egiten ikasteko tailerra izango da lehenengo ekitaldia, azaroaren 22an. Amaia Gartzia bermeotarrak eskainiko du, Etxa-



Hutsun txalaparta taldeak kontzertu didaktikoa eskainiko du azaroaren 23an.



IURRETA

Tellitu-n

*3 logelatako
6 etxebizitza*

*2 logelatako
11 etxebizitza*

*Garajea eta
trastelekua barne*



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com



Azkarate goiko ilaran ezkerrekoa da; Gorroño goiko ilaran ezkerretik hirugarrena

Hareek denporak!

REAL MADRILEKO JOKALARI OHIA BERRIZEN ENTRENATZEN

Aurten 45 urte bete dira Berriz kirol elkarte eta beragaz Berriz futbol kluba sortu zutenetik. Filiberto Azkarate durangarra izan zen lehenengo talde hartako entrenatzailea. Azkarate ez zen edonor. 1945ean, 21 urte zituela, Real Madrilek fitxatu zuen eta lau denboralditan Kopa bi (orduan *Copa del Generalísimo* deitua) irabazi zituen. Jokatzeari utzi zionean entrenatzaile hasi zen. Durangoko Kulturala eta

Lemoa zuzendu ostean Berrizen gidaritza hartu zuen, 1973an.

Aurreneko partidu biak galdu egin zituen Berrizek eta hirugarrenean lortu zuen lehenengo garaipena: 7-1, Beletxeren aurka. Klubaren lehenengo gola —historiarako— Jesus Gorroñok sartu zuen, Felipe Barceló Galdakanok klubaren 25. urteurrenaren harira idatzitako *Berriz kirol elkarte, mende laurdeneko bidea* liburuan jasotzen denez.

Politikan

Julian
Rios Santiago
SQ-2D



Desberdintasunak

Urtarrilean, ETSk 1,2 milioi euro gastatu zituen tren estazio zaharra eraisteko, 2.000 lagunek ez botatzeko sinatu arren. Gobernu taldeak eraiketara justifikatu zuen, estazio berrirako sarrera egiteko zela argudiatuta.

Uztailaren 9an, ETS estazioko lurretan urbanizazio lanak udal baimenik barik egiten hasi zela ikusita, Herriaren Eskubideak idatziz salatu zuen. Uztailaren 17ko Hirigintza Batzordean, 50 herritarren aurrean, salaketa honi buruz galdetu genion batzordeko presidenteari. Lanei buruz ezertxo ere ez zekiela erantzun zuen.

Legezko 30 egunetan ez genuen batere erantzunik jaso, eta irailaren 13an beste idatzi bat aurkeztu genuen. Horri ere ez erantzutera eta lanek normaltasunez jarraitzen zutela ikusita, irailean lanei buruz galdetu genuen berriro.

Hainbat salaketa jarri arren, EAJ/PSEK ez du azaroaren 6ra arte esku hartu. Epe legal guztiak gainditu dituzte, beraz. Gaur egun lanak ia amaituta daude eta ez dago tren estazioko sarrera berriaren arrastorik. Horren ordez, errepide bat eta biribilgune erdi bat daude. Zergatik itxaron dute 4 hilabete lanak geratzeko? Ze interes dute errepidea eta biribilgune erdia eginda uzteko? Zer gertatuko da herritarrei egindako galdeketa errepidea eta biribilgune hori nahi ez dituztela erabakitzen badute? Zergatik geldiarazten dira herritarren lanak zazpi egun baino lehenago eta, horrez gain, zehapen-espedita bat ezarri? ETSren, kasuan oster, euren lana geldiarazi baino ez dute egin, eta, gainera, hasi eta lau hilabetera. Zergatik gertatzen dira desberdintasun hauek?

*Erredakzioan itzulita

Durangaldea asteen

Mikelarra berdegunea ekitaldi batez inauguratu dute Mikeldiko bizilagunek

Durango Udalaren asmoen artean, berdegunean 26 plazako parking bat egitea dago, eta horren aurka daude inguruko bizilagunak. Aldarrikapen estiloko inaugurazioan, Mikelarra izena ipini diote berdeguneari, eta Mikel bertan dagoen arbolari. Bientzako plaka bana ere ezarri zuten. Parkinga egiteko aukeraren harira, udalaren erantzunik ez dutela jaso esan zuen Ortzi Egia bozeramaileak.



Plastiko beltzez beteta daude Elorrioko komertzioetako erakusleihoak

Elorrio Merkataritza biziberritu eta herritarrek sentsibilizatzeko asmoz, *herria ilunetan* kanpaina jarri dute martxan asteen Elorrion. Astelehenetik, herriko 114 komertzio plastikoz betetako erakusleihoetan. "Ekimenagaz, komertzio txikirik barik herria nolakoa izango litzatekeen erakutsi gura izan dugu", azaldu du Izaskun Agirre merkatarien elkarteko presidentek.



Iritzia

Eskerrik asko 50. urteurreneko bazkarian omenaldia egin ziguten antolatzaileei

Kurutziaga Ikastolako 1963 eta 1964 promozioen izenean, eskerrak eman nahi dizkiet 50. urteurreneko bazkarian omenaldia egin ziguten antolatzaileei. Haien lan esker eta pazientzia azpimarratu nahi ditut.

Mila esker, baita ere, denboraren joan-etorrian ikastolako komunitatea osatuz joan diren guztiei, hasiera-hasierako guraso eta irakasle ausart haiengandik hasi eta gaur egun oraindik fardela aldean daramaten 0-3 urteko geletako haurrengana, tartean dauden guztiei.

Ez ditut aipatu gabe utzi nahi larunbatean, arrazoi desberdengatik, gurekin egoterik izan ez zutenak, eta bereziki dagoneko gure artean ez daudenak. Bihotzean daramatzagu, eta beti izango dugu gogoan haiengandik jasotako gutzia.

Pedro Pablo Arrinda (1963 eta 1964 promozioen izenean).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

CERAMICAS
MACOBER




ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Azaroaren 29an
osteguna
19:00etan

DANI FANO, ALEX SANVI
eta UNAI ITURRIAGA euren
komikiak aurkezten eta
sinatzen izango ditugu!!



hitz artekalea, 23 durango
946 810 776
liburudenda info@hitliburudenda.com

#aurkezpena

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA



***Tratu txarren biktima diren emakumeentzako
arreta psikologikoa eta zerbitzu juridikoa
946 200 492***



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



berrizko



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Pink abeslariaren 'So What' kantuagaz flashmob bat egingo dute hainbat herritarrek

Iaz, Lady Gagaren abesti batez sortutako koreografia bat kopiatu zuten; aurten, erronka moduan hartu eta euren koreografia landuko dute

DANTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Herriko Plaza flashmob baten eszenatoki bihurtuko da azaroaren 25ean. Lehenengo, 13:00etan, adierazpen instituzionala irakurriko dute udal ordezkariak eta, horren ostean, asteetan entseatutako koreografia erakusteko unea helduko zaie hainbat herritarri.

Adierazpenaren irakurketa eta flashmoba bata bestearen segidan jartzea ez da kasualitatea. "Flashmoba iaz egin zen lehenengoz, eta harrera ona izan zuen. Flashmobaren ondorioz, jende gehiago eta, batez ere, gazte gehiago batu ziren plazara. Horregatik, iazko ereduarepikatuko dugu aurten", adierazi du Mery Cordoba Zornotzako Udaleko berdintasun teknikariak.

Koreografia berria

Flashmoba egiteko ez du edozein abestik balio. Ezaugarri batzuk bete behar ditu, dantzagarria izatea, esaterako. Horrela, Beldur Barik egitasmoak egindako abestien zerrendara joan eta Pink musikari estatubatuarren *So What* abestia aukeratu dute. Iaz beste estatubatuar bat izan zen protagonista: Lady Gaga, *Telephone*

abestiagaz. Iazkoaren eta aurtengoaren artean alde handi bat dago. "Lady Gagaren abestiaren koreografia eginda zegoen, Beldur Barik egitasmoaren barruan. Hura hartu genuen oinarri,

Mery Cordoba: "Flashmobak harrera ona izan zuen iaz eta jende gazte gehiago batu zen plazara"

Olaia Larruzea: "Aurtengo koreografia gurea izango da eta elkarlanean hutsetik sortuko dugu"

baina aurtengoa gurea izango da. Elkarlanean hutsetik sortuko dugu", azaldu du koreografiaren arduraduna den Olaia Larruzeak. Partehartzaile denen artean sortuko duten koreografia izango dela dio. Joan zen barikuan izan zuten lehenengo entsegua. Gaur eta azaroaren 24an ere batuko dira, 17:00etatik 18:00etara, Gazte Txokoa.



AMOREBIETA-ETXANOKO
UDALA

EMAKUMEEN
AURKAKO
INDARKERIAREN
KONTRA





Joan zen barikuko lehenengo entsegura batu zen zornotzar taldea.

"Edertasun eredu murriztuta dago egun; ez dago aniztasunik"

'Bulimika mentala naiz' ikastaroa emango dute zapatuan, 10:00etan, liburutegi zaharrean



IKASTAROA • A.M.

Ainhoa Al Rifaie berdintasun teknikariak bulimia eduki zuen. Abiapuntu horregaz, tailerrean eztabaida piztu gura du, emakumeek ahizpatasunetik beldurrei buruz berba egiteko. Edertasun kanonek duten eraginaz ere mintzatuko da.

Zeintzuk dira edertasun kanonak?

Azkenengo mende bietan kanon ereduak nahiko aldatu dira. Azken hamarkadetan, argal egotea izan da oinarria edertasun estereotipoan; azken hamarkadan, ostera, badirudi aldatu egin dela. Aldaka zabalagoak, ipurdi handiagoak, azal beltzaranagoak eta abar daude oinarrian.

Zein eragin dute jendartean?

Emakumeenganako erabateko eragina dute, batez ere nerabeen artean, eredu horiek adibidez hartuko dituztelako txikitatik. Historikoki, edertasun eredu gizonen begiradatik eraiki da, emakumeon ekarpenak kontuan hartu barik; horrek erabakitzen du edertasun estereotipoa zein den. Egunerokotasunean duen eraginak bizi kalitatea murrizten du, triste sentituko garelako eta frustrazioak sortuko dizkigulako. Emakumeok txikitatik mezu hauek barneratuko ditugu, eta eredu normaltzat hartuko da. Gaur egun, edertasun eredu guztiz murriztuta dago; ez dago aniztasunik.

Eskolako umeen lanak ikusgai liburutegi zaharrean

Azaroaren 25ean kontzentrazioa egingo dute Zaldibarren



Kontzentrazioa egingo dute zaldibarren.

OMENALDIA • ARITZ MALDONADO

Azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldi sorta egongo da Zaldibarren. Azaroaren 20ean, *Volar* pelikula proiektatuko dute, 18:30ean, liburutegian. Ikastetxeetan ere asteak darमतate gaia lantzen. Zaldibarko hurrek egunetan zehar eginiko lanak ikusgai egongo dira azaroaren 24an eta 25ean. 25ean bertan, kontzentrazioa egingo dute Zaldibarko Talde Feministak deituta, eta Euskal Herrian "eraildako" emakumei omenaldia egingo diete. Puntu moreak udaletxean eta liburutegian egongo dira eskuragarri.

Azaroaren 20an 'Volar' pelikula proiektatuko dute liburutegian

AZAROAK 2018 25

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA.

JASO EZAZU ZURE PUNTU MOREA
UDALETXEAN ETA LIBURUTEGIAN

AZAROAK 17, ZAPATUA

10:00-13:00 EMAKUMEEN AHALDUNTZE IKASTAROA.
BULIMIKA MENTALA NAIZ?
AINHOA AL RIFAIE-REN ESKUTIK
Liburutegi zaharrean

AZAROAK 20, MARTITZENA

18:30 "VOLAR" PELIKULAREN PROIEKZIOA
Liburutegian

AZAROAK 24-25, ZAPATUA ETA DOMEKA

ZALDIBARKO ESKOLAKO IKASLEEN LANA IKUSGAI
Udaletxeko atarian

AZAROAK 25, DOMEKA

13:00 ZALDIBARKO MUGIMENDU FEMINISTAK DEITUTA

KONTZENTRAZIOA

**HAU EZ DA GURE BAKEA,
AURREAN GAITUZUE!**

Lehendakari Agirre parkean



INDARKERIA
MATXISTARIK
EZ!

ZALDIBARKO
MUGIMENDU
FEMINISTA

Zaldibar
Elizateko Udala

Emakume palestinarren errealitatea ezagutzeko, antzerki-jokoa egingo dute

Besteen errealitatea ezagutzeko helburua duen ekintza Hortzmuga taldeak gidatuko du Zornotza aretoan



Zornotzan errefuxiatuen alde egindako ekitaldi bateko irudia.

ANTZERKI-JOKOA • JOSEBA DERTEANO

Hortzmuga antzerki taldeak enpatia lantzeko ariketa bat proposatuko du azaroaren 21ean. Bertaratzen diren herritarrak ez dira ikusle soilak izango: aktore bihurtuko dira. Emakume palestinar errefuxiatuen paperean jarriko dituzte. Bakoitzari rol bat emanda, haien egunerokotasunari lotutako hainbat egoerei aurre egin beharko diete. *Haien zapatetan* deitzen da antzerki-jokoa eta izenak berak dioen moduan, besteek pairatzen dutena ulertzeko, haien azalean jartzea eta lehenengo pertsonan sentitzea da helburua. "Besteen zapatetan jartzea, istorio propioa beharrian, beste batena bizitzea da, enpatia landuz besteak modu sakonagoan ezagutzeko da". Horrela laburbiltzen dute Hortzmuga taldekoek antzezlanaren funtsa. Ekimena 19:00etan hasiko da, Zornotza Aretoan.

Haien zapatetan Bilboko Hortzmuga taldeak UNRWA agentziarentzat egindako proiektua da. Nazio Batuen Erakundearen barruko agentziak errefuxiatu palestinarrei laguntzea eta haien egoera gizarteratzea ditu helburu. Horretan lagunduko du antzezlanak, eta baita azaroaren 29rako prestatu duten proiektzio emanaldiak ere. Emakume palestinarrek egindako bideolan laburrak eskainiko dituzte Zelaletako Auditorioan, 19:00etan. Euskadiko UNRWA erakundeko kideak egongo dira proiektioei buruzko azalpenak ematen.

Hortzmuga antzerki taldeak Nazio Batuen Erakundearen barruko UNRWA agentziarentzat landutako proiektua da antzerki-jokoa

Emakumeen kontrako indarkeriak sortutako gogoeta irudikatuz

Indarkeria matxistaren inguruko hausnarketa islatu gura duen 'Adierazpenak-Expresiones' erakusketa antolatuko dute azaroaren 22tik 26ra bitartean Iurretako Ibarretxe Kultur Etxean



Iaz ere egin zuten 'Adierazpenak-Expresiones' erakusketa eta oso harrera ona izan zuen.

ERAKUSKETA • AITZIBER BASAURI

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean sortutako gogoeten isla izan gura duen *Adierazpenak-Expresiones* erakusketa zabalduko dute azaroaren 22tik 26ra bitartean, Ibarretxe kultur etxean. Iurretarek eurek sortutako marrazkiekin, bertsoekin, esaldiekin eta binetekin osatu gura dute erakusketak, eta Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira, Iurretako Udalak ekimenagaz bat egitera gonbidatu ditu herritarrak. *Berdintasuna, indarkeria eta sexismoa* gaiari helduta, bakoitzak gura duen eran adieraziko du sortutako gogoeta; librea da espresio modua, antolatzaileek azaldu dutenez.

Iaz antolatu zuten lehenengoz erakusketa Iurretan, eta oso harrera ona izan zuen. Azaroaren 25aren bueltan, ikastetxeetan eskola-umeekin lantzen duten gaia da emakumeekiko indarkeria, "eta erakusketa hau landutako hori bistaratzeko modua

ere bada", adierazi dute antolatzaileek. Sentsibilizatzeko eta kontzientzia hartzeko tresna bat izan gura du ekimenak, adin guztietako gizon-emakumeei zuzenduta.

Azaroaren 25aren harira, emakumeenganako indarkeria gabeko herriaren alde aurpegia ematera deitu dituzte iurretarrak

Indarkeriaren aurka aurpegia emanez

Horrez gain, *Emakumeenganako indarkeria gabeko herriaren alde* lelopean aurpegia ematera ere deitu dituzte norbanakoak. Horretarako, gura dutenek, argazki bat ateratzeko aukera izango dute, azaroaren 19tik 22ra. Herriko elkarteak ere deialdi horregaz bat egitera gonbidatuko dituzte. Argazki guztiekin murala osatuko dute.

AZAROAK 25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA IURRETA

19
azaroak

18:00 Emakumeen literatur tailerra
ESCRITORAS INGLESAS (aurretiaz izena eman)
Ibarretxe Kultur Etxea

15/19
azaroak

"ADIERAZPENAK" Aurkeztu zure marrazki, esaldi, bertso, eslogan eta binetak.
Gaia: Berdintasuna, indarkeria eta sexismoa
Ibarretxe Kultur Etxea

19/22
azaroak

PHOTOCALL "Emakumeenganako indarkeria gabeko herriaren alde" (Argazkiekin mural bat osatuko da)
Ibarretxe Kultur Etxea

22
azaroak

Eskola zentruetan ekintzak. Pegatinak eta puntu moreak banatuko dira. Morez janztera animatzen zaitugu. Erakusketa "ADIERAZPENAK"
Ibarretxe Kultur Etxea

18:30 Adierazpen Institutuzionalaren Irakurketa
Jarraian ZINEMA
Ibarretxe Kultur Etxea

24
azaroak

10:00 NORDIC WALKING tailerra (3 ordu)
Izen-ematea: azaroaren 5etik 20ra
Askondo kalea

27
azaroak

17:00 ADINKERIA- Emakumeen zaharalduntze tailerra
(aurretiaz izena eman)
Ibarretxe Kultur Etxea

30
azaroak

19:00 Helduen ipuin kontalaria
"SOLA SOLAE" - Mon Mas (Katalunia)
Ibarretxe Kultur Etxea



"Parekidetasuna eta hezkidetzak bultzatu gura ditu 'Futbolariak eta Printzesak' antzezlanak"

Azaroaren 21ean Elorrion taularatuko dute antzezlanak, LHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleentzat



Jon Zubiaga eta Olatz Pagaldy antzezleak.

ANTZERKIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azaroaren 25aren harira, Jon Zubiagak (Arrasate, 1978) 'Futbolariak eta Printzesak' antzezlanak taularatuko du Elorrion, Olatz Pagaldyarekin batera. 'Mari eta Gailera Fabrika' antzezlanaren estreinuan buru-belarri zentratuta daude Eidabeko kideak, baina hilaren 21ean, 10:30ean, parekidetasunean eta berdintasunean hazi eta hezteko antzezlanak plazaratuko dute lehen hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleentzat.

Zer kontatzen du 'Futbolariak eta Printzesak' antzezlanak?

Piper egin eta Lurrek eta Odeik topo egingo dute eskolako ganbaran. Elkar ezagutzen hasi, eta, prozesu horretan, gizarteaz eta inguratzen dituen normatibitateaz gogoeta egingo dute. Egunerokotasunean jarraitzen dituzten arauak zalantzan jartzen hasiko dira. Barne bidaia horretan, ikusleak modu aktiboan parte hartuz

"Parekidetasuna eta hezkidetzak berba potoloak diren arren, formatu barregarrian jorrotzen ditugunez eragina lortzen dugu"

ere gonbidatuko dituzte, euren jolasen konplize izateko.

Antzezlanak gaztetxoek bakarrik dago zuzenduta?

Antzezlanak haur eta gaztetxoek zuzenduta badago ere, oso aproposa da familia osoarentzat. Bertan irudikatzen ditugun egoerak hainbat ikuspegitatik jasotzea oso ona da, gero, antzezlanaren ostean, hantxe jorrotutako gaiak buruzko solasalditxo bat izateko aukera dutelako haurrek eta helduek. *Futbolariak eta Printzesak* antzezlanak 0-99 urte arteko eremuan kokatu daitezkeela esango nuke.

Zein da antzezlanaren helburua?

Futbolariak eta Printzesak antzezlanak parekidetasuna eta hezkidetzak bultzatu gura ditu. Berba potoloak dira, baina formatu barregarri eta di-

"Haur eta gaztetxoek errealitatea islatzen saiatzen gara, modu barregarri eta ironiko baten bitartez"

bertigarrian jorrotzen ditugunez, ikuslearengan eragitea lortzen dugula uste dute. Antzezlanaren ostean, ikusleak beste begirada batez irteera lortzea da gure helburu nagusia.

Musika eta kantuek erabiltzen dituzte gizarte honetako topikoak gaztetxoek kontatzeko.

Abestiek erritmoa eta bizitasuna gehitzen dizkiote lanari, mezua modu errazago batean helaraziz publikoari. Esketz moduko eszena laburrez eraikita dago antzezlanak eta abestiek gaitara hurbiltzeko balio dute.

Zuzentzen zere suposatzen du antzezlan honetan parte hartzea?

Bakoitzaren haur garaira bidaiatzea suposatzen du. Barruan daramagun gaztetxo horregaz konektatzen dugu emanaldi bakoitzean eta, horren bitartez, ikusleek egunero bizitzen dituzten egoerak kanpotik ikus ditzaten saiatzen gara. Nolabaiteko exorzismo bat da guretzat, konplexuak eta arau normatiboak apurtzen saiatzen garela antzezlanaren bitartez. Lurrek eta Odeik Olatzengan eta Jonengan iraultza txikia eragin dutela esango nuke.

Amaitzeko, 'Futbolariak eta Printzesak' antzezten zaudetenean, publikoan dauden haurrak zuen lanagaz identifikatzen direla esango zenuke?

Baietz uste dugu. Ispilu baten lana egiten dugu. Haur eta gaztetxoek errealitatea islatzen saiatzen gara, modu barregarri eta ironiko baten bitartez, eta identifikatuta sentitzen direla esango nuke, bai.

ELORRIO

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA
Zure agendan apuntatu eta parte hartu!!

- 21 ASTEAZKENA** 10:30 "Futbolariak eta Printzesak" antzezlanak. Zuzendaria: Galder Perez. Ikastetxetako LHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat. Umeek ezarritako genero-estereotipoak eztabaidatzen. **Arriola Antzokia**
- 22 OSTEGUNA** 16:00 "Una mujer fantástica", film didaktikoa. Elorri Lore **Iturri Kultur Etxea**
- 24 LARUBATA** Egun osoa **Beldur Barik Topaketa Gasteizen** Gazteentzako tailerrak, musika, sariak eta jolasak (www.beldurbarik.eus) Elorriotik busak doan. Izena emateko: berdintasuna@elorrrio.eus / 94 6570809 / Udaletxean
- 25 IGANDEA** 13:00 Kontzentrazioa: Indarkeria matxistari ez! Indarkeria matxista salatuzko bufandak, "Elorrio korapilatzen" ekimena **Plazan**

“Alcasserreko kasua hilketa matxista izan zela plazaratzea da nire asmoa”

Nerea Barjola idazle santurtziarrak Berrizko Kultur Etxe zaharrean aurkeztuko du liburua, 19:30ean



Nerea Barjola Ramos.

LIBURU AURKEZPENA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Nerea Barjola Ramos (Santurtzi, 1980) idazleak 'Microfísica sexista del poder' liburua aurkeztuko du azaroaren 21ean, Berrizko Kultur Etxe zaharrean, 19:30ean. Gainera, liburuan kontatzen den Alcasserreko hiru nesken hilketen kasuaz berbaldia eskainiko du santurtziarrak.

Hilaren 21ean 'Microfísica sexista del poder' liburua aurkeztuko duzu. Zertan datza?

Liburuaren izenburua Michel Foucaulten boterearen mikrofisika kontzeptutik dator. Botere lauso bati egiten dio erreferentzia, botere zehaztugabea denari. Ez dakigu nork daukan, baina pertsona guztiok daukagu. Kontzeptu interesgarria iruditu zitzaidan izu sexuala azaltzeko eta, horren bidez, Alcasserreko krimen sexualaren inguruan idaztea pentsatu nuen. Kasu hori ikuspuntu feminista batek azaltzen dut nire lanean.

Zergatik idatzi duzu Alcasserreko kasuaz?

Izu sexualari buruz jaso dudan lehenengo kontakizuna izan delako. Ni Alcasserreko kasuaren garaikoa naiz, eta kasu honek emakume izateagatik gertatu ahal zitzaidanagaz harremanetan jarri ninduen. Gainera, hilketa hirukoitz honen kasua aztertu dudanean, konturatu naiz 90eko hamarkadan Alcasserreko hilketak mugarrria izan zirela ikara sexuala gizartean zabaltzeko.

Zure lanagaz zer plazaratu gura izan duzu?

Teoria kritiko feminista batetik Alcasserreko kasuari deitura aldatzea gura izan diot eta testuinguru eta marko ideologiko patriarkal eta matxista batean kokatu gura izan dut. Alcasserreko kasua hilketa matxista bat izan zela plazaratzea da nire asmoa, ez kondaira bat edo salbuespeneko kronika ilun bat. Ez zen salbuespen bat izan. Alcasserrekoa gertatu egiten da. Alcasser sistema da.

AZAROAK 25

Emakumeenganako
indarkeriaren kontrako eguna

21
azaroak

19:30 “Microfísica sexista del poder”
liburuaren aurkezpena eta solasaldia
Nerea Barjola idazlearekin
Kultur Etxe zaharra

22
azaroak

20:00 “La mujer sola” Antzerkia (Doan)
Kultur Etxea

24
azaroak

20:00 “Las hermanas Rivas” Antzerkia (6/8€)
Kultur Etxea

25
azaroak

12:00 MARTXA Udaletxetik Urtiaga plazara



AZAROAK 24
Beldur Barik
Topaketa Gazteizen
Berriztik busak doan
Izena emateko:
gizarte3@berriz.eus
94 682 45 25

Errefuxiatuei laguntzera zuzenduko dute Emakumeen Lasterketan batutakoa

CEAR-Euskadi erakundeak emakume errefuxiatuen alde egindako lana babestu gura dute aurtengo irabaziekin

LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO

Durango Kirol Taldeak antolatutako Emakumeen Lasterketak hirugarren aldia egingo du azaroaren 25ean. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurtengo irabaziak CEAR-Euskadi erakundeari emango dizkiote, emakume errefuxiatuen alde egiten duen lana babesteko. Horrela, lehia eta elkartasuna uztartuko dituzte beste behin.

Lasterketak bost kilometro izango ditu eta 11:30ean hasiko da, Ezkurditik. Durangoko hainbat kale zeharkatu ostean, toki berean helmugaratuko dira. Aurretik, 11:15ean, beste proba laburrago bat ere egingo dute, gaztetxoek eta gura dutenek parte hartzeko.

Izen-ematerako hainbat aukera

Izen-ematea interneten bidez (www.kirolprobak.com webgunean) egin daiteke, 10 eurotan. Azaroaren 21etik 23ra Andragunera joatea da beste bide bat. Egunean bertan ere apuntatu daiteke, 12 euro ordainduta. Lasterketa laburrerako, egunean bertan eman behar da izena, 10:00etan hasita. Dorsalak eta kamisetak proba egunean banatuko dituzte.

Lasterketak bost kilometro izango ditu eta 11:30ean hasiko da, Ezkurditik. Durangoko hainbat kale zeharkatu ostean, toki berean amaituko da





Miriam Rodriguezek gidatuko du Abadiñoako instalazio artistikoa.

“Jendearen parte-hartze barik artelana osatu barik dago”

'Harresia apurtzen' artelanean abadiñar guztiek egin dezakete euren ekarpena

ARTEA • JONE GUENETXEA

Azaroaren 25aren harira, 'Harresia apurtzen' ekintza feminista kolektiboan parte hartzeko aukera izango dute abadiñarrek. Harresiak genero indarkeria irudikatuko du, eta herritarrek hesi hori apurtu eta eraldatzea da proposamena. Miriam Rodriguez

Moranek (Asturias, 1983) gidatuko du artelan eraldatzaile hau.

Zelan bururatu zaizu ekintza hau egitea?

Ekintza feminista kolektibo bat egin gura nuen. Filosofiaren mundutik natorren arren, artearen

"Horma bat da, hesi bat, genero biolentzia irudikatuz. Denon esku-hartzea beharrezkoa izango da, kolpe bakarragaz ez da jausiko eta"

munduagaz lotura dut. Doktoretza alde estetikoetik osatu dut eta margotu egiten dut. Pintura erakusketak antolatzen ditut, baina oraingo honetan ekintza parte-hartzaile bat proposatu gura nuen. Obra bera ikertzeko baliatzea da asmoa. Amaieran emaitza bat lortzea da helburua.

Zer da 'Harresia apurtzen'?

Instalazio artistiko bat da. Bertan mundu guztiak parte hartu behar du. Jendearen parte-hartze barik obra egin barik dago. Horma bat da, hesi bat, genero biolentzia irudikatzen duena. Denon esku-hartzea beharrezkoa izango da, kolpe bakarragaz ez da jausiko eta. Horma hau poliespanagaz eginda egongo da. Erraz apurtzeko materiala da.

Herritarrek noiz parte hartu ahal izango dute?

Matienako Errota kultur etxeko aretoaren sarreran egongo da, azaroaren 26an egun osoan eta 27an goizean, 15:00ak arte. Mundu guztia harresi hori apurtzera gonbidatuta dago. Apurtzen duen zati horregaz bakoitzak gura duena egin ahal izango du. Margoak jarriko ditugu, gura duenak erabili ditzan: hausnarketaren bat idazteko, esaldiren bat, marrazkiren bat egiteko... Ondoren, pieza horiek zirkuitu batean jarriko ditugu.

Eta zein izango da emaitza?

Prozesu guztia grabatu egingo dugu, hasieratik amaierara. Transformazio guztia iruditan jasoko dugu. Hau guztia azaroaren 29an aurkeztuko dugu, Errota kultur etxean, 19:00etan. Berbaldira labur batean, obra zein izan den eta emaitza zein izan den azalduko dut. Agian horma ez da guztiz eraitsiko. Hori ikusi egin beharko dugu. Herritarrek ze esaldi idatzi dituzten ere ikusiko dugu. Agian batzuk ez dira egokiak izango, baina horiek ere aztertzeokak dira, kalean dauden diskurtsoak oso anitzak direlako, berdintasunagaz denok bat egiten dugula diogun arren.



lazko Emakumeen Lasterketako argazkia.



AZAROAK 25 - ABADIÑO 'Emakumeenganako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna'

AZAROAK 13tik ABENDUAK 10era

GIZONAK, BERDINTASUNA ETA MASKULINITATE BERRIAK
Piper txuriak. Berdintasunaren aldeko gizonen taldea
Argazki erakusketa - Errota Kultur Etxea

AZAROAK 16

19:00 KABI BILUZIAK Virginia Senosiain-Juan Luis Napal
Dokumentala eta solasaldia egileekin - Txanporta Kultur Etxea

AZAROAK 22

18:00 HARRRESIA APURTZEN Nola egingo diogu aurre indarkeria matxistari Abadiñon? Adituekin mahal-ingurua - Errota Kultur Etxea

AZAROAK 24

BELDUR BARIK TOPAKETA OROKORRA
Sari banaketa eta tailerrak Beldur Barik jarrerarekin!
12 eta 26 urte arteko gazteentzat

AZAROAK 25

12:30 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA Kontzentrazioa - Trañabarren kalea

AZAROAK 26-27

"HARRRESIA APURTZEN" Artelana bisitatu eta eraldatu
Errota Kultur Etxea. **Azaroak 26:** 9:00-20:30 / **Azaroak 27:** 9:00 -15:00

AZAROAK 29

19:00 GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO ARTEA
"HARRRESIA APURTZEN" artelanaren eraldaketa-prozesuaren aurkezpena, Miriam Rodriguez Morán artistarekin
Aurkezpen - Hitzaldia - Errota Kultur Etxea

ABENDUAK 1

19:00 I NI CE. AFRIKARI OMENALDIA Muládarra. Perkusio eta dantza afrikarren emakume taldea - Errota Kultur Etxea

Abadiño
Elizateko Udala

**EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ!**

"Reggaetoian nagusitzen diren letrak mina egiten ari dira gaztetxoengan"

Durango gazteekin indarkeria matxistaren gaiaz berba egin du Martinezek, lokaletara joanda



DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Usue Martínez Olivera (Durango, 1993) da aurtengo Durango azaroaren 25eko karteletako irudia. Haur Hezkuntza ikasi ostean, Arte Dramatikoko ikasketak egitea erabaki zuen, bere pasioari bide emanaz. Aktore izateaz gainera, musikaria ere bada; adibidez, Durango abesti feministen lehiaketan parte hartu

zuen Nerea Alzagaz batera. Nabarmentzekoa da udalak sustatu duen Herri Akordioaren baitan herriko gazteekin landu duela eraso sexisten gaia.

Azaroaren 25eko egitarauko irudia izateko aukeratu zaituzte. Pozik zaude?

Oso pozik, egia esan. Niretzat plazer bat da Duran-

"Plazer bat da Durango emakumeen irudian ni agertzea, baina ardura ere bai, garrantzi handiko gaia da eta"

goko emakumeen irudian ni agertzea, baina baita ardura ere, garrantzi handiko gaia da eta.

Eraso sexisten aurkako Herri Akordioa sustatzen ibili zara azken hileetan. Zer garatu duzu?

Herri Akordioa gazteen artean ezagutzera ematea izan da nire lana, eta Durango jaietan zenbait ekintza aurrera eramatea ere bai. Jaietan 400 bat argazki atera genituen, eta akordiorako 500 bat sinadura batu. Gainera, aurten, iaz baino gehiagok ezagutzen zuten akordioa. Gazteei begira, lokaletan bisitak egitea izan da jarduera nagusia. Durango 14 gazte-lokaletatik pasatu naiz. Akordioaren berri eman, euren konpromisoa sustatu eta protokoloa azaldu izan dut, eraso sexista baten aurrean zer egin jakin dezaten.

Zer sentsazio jaso duzu gazteen partetik lokaletara joan zarenean?

Oso sentsazio ona jaso dut. Tristeia bada ere, kontzientzia sortu da sexu eraso hainbat kasu egon direlako gure herrian. Iaz gaztetxoek gazteekin baino hobeto hartu zuten bisita, baina aurten aldaketa itzela nabaritu dut. Oso gustura ibili naiz eurekin berbaldiak edukitzean.

Urteek aurrera egin arren, indarkeria matxista ez da desagertzen, eta kasu asko salatu dira azken urteetan. Etorkizuna direla kontuan izanda, gaiarekiko sentsibilizatuta ikusten dituzu gaur egungo gazteak?

Kontzientzia handiagoa ikusten dut. Ikastetxeetan ere lan handia egiten dabilta eta eskertzekoa da. Baina oraindik lan asko dago egiteko. Reggaetoian nagusitzen diren letrak mina eragiten ari dira, batez ere gaztetxoengan, ez dutelako ikuspuntu kritiko gure adineko gazteek bezain garatua. Musika laguntzen ez badu, eta euren egunerokotasunean dagoela jakinda, lan egin beharko da horretan. Guztion borroka bat da, guztion aletxo beharko da benetako berdintasuna lortzeko.

DURANGO
2018
azaroak
25



DESKARGATU
GURE APP-A ETA
ZUREKIN ERAMAN!

USUE MARTÍNEZ

ANTZEZLEA ETA INDARKERIA
MATXISTAREN KONTRAKO
HERRITARREN AKORDIOAREN
DINAMIZATZAILEA

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

AZAROAK 23

12:30 Herriko entitateei aitortza, indarkeria matxistaren kontra duten inplikazioagatik - Udaletxean

13:00 Elkarretaratzea eta Azaroaren 25eko Adierazpena ikastetxeetako ikasleekin - Udaletxeko plazan

19:00 Literatura emanaldi musikatua - Andragunean

Partehartzaileak: Erika Lagoma, Eider Gorrotxateg, Mayi Sánchez, Arrate Mardaras, Coro Benito, Cristina Mardaras, Leire Bilbao, Esti González, Eunate Zarabeitia eta June Iturriaga.

Antolatzailea: Irakurketa Emakume Taldea

AZAROAK 25

11:30 III. Emakumeen lasterketa - Ezkurdi Plazan

Inskripzioak: www.kirolprobak.com

Antolatzaileak: Durango Masters Kirol Kluba, Durango Udala

13:00 Manifestazioa - Andramari elizpean

Antolatzailea: Durango Plataforma Feminista

AZAROAK 26

19:30 Hitzaldia: "Acercándonos a la revolución de las mujeres de Rojava" - Andragunean

Antolatzailea: SUARGI Elkarte

Azaroak 24

BELDUR BARIK-TOPAKETA

Gazteentzako tailerrak, musika, sariak eta jolasak. Gasteizen (egun osoa) busak doan antolatuko dira. Info: www.beldurbarik.org/eu/

SENTSIBILIZAZIO ETA BORTIZKERIA PREBENITZEKO TAILERRAK IKASTETXEETAN

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK





Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:



3D PRINT COLOR

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
-% 5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
-% 10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-% 5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-% 15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

OPEN KLUB

-% 20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



PLATERUENA Kafe Antzokia
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreran.

URKI KOPISTEGIA

-% 10 amantaletan
-% 10 jolasetan

IURRETA KOPISTEGIA

-% 5 eskola eta bulego materialean.
-% 5 opari eta liburuetan.
Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

URRIKE LIBURU-DENDA

-% 5 liburuetan.
-% 10 papergintzan.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

-% 15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



NATURALKI Belardenda-Ekodenda

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.



Anbotorenlagunak

Lekuan lekuko lagu-

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Hector Watt

KONTZERTUA
ELORRIO : Azaroak 17

Hector Watten blues doinuak, Jazz Blues jaialdiaren eskutik

Hector Watt blues gitarrista eta abeslari historikoaz gozatzeko aukera egongo da Elorrioren Jazz Blues jaialdiaren barruan. Azaroaren 17an, zapa-tuan, eskainiko du kontzertua, 22:30ean, Arriola antzokian.

Ibilbide luze eta emankorra du Texaseko (USA) Austin hiriko musikariak. Besteak beste, Lou Ann Barton, Uncle John Turner Band eta Texas Cannonballs taldeen buru izan da Hector Watt.



Maroko ardatz duen egitaraua osatu dute

JARDUNALDIAK | Bideak gurutzatuz: gure komunitatea osotzen duten migrazio arloko istorioak jardunaldiak Maroko izango du, aurten, ekintza guztien ardatz. Bigarren edizioa duen ziklo hau azaroaren 19an hasiko da eta abenduaren 2ra arte iraungo du, Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan.

Denboraren Bankuko irakurketa klubak hasiko du egitaraua, astelehen honetan, Najat Hachmiren *La hija extranjera* liburuaren irakurketagaz. Azaroaren 22an, 18:30ean, elkarrizketa filosofiko tailerra egongo da, eta Miren Camisonek gidatuko du. Filosofian lizentziaduna da, eta praktika filosofikoetan eta hezkuntza interkulturallean aditua. Sukaldaritzat tailerra egingo dute hilaren 24an eta, 28an, giza biblioteka: Durangon bizi diren marokoarrek euren bizi-istorioak kontatuko dituzte. Hitzaldia eta ipuin kontaketa saioak ere antolatuko dituzte.

Azaroaren 16an

ELORRIO ipuinak
Maidier Alcelay ipuin kontalaria, 17:00etan (3-5 urte) eta 17:30etan (6-9 urte), udal liburutegian.

ABADIÑO emanaldia
'Ttipia Ganbaran' ikuskizuna, 18:30ean, Errotan.

IURRETA jaia
Euskaraldia jaia, 19:00ean, Askondon.
Klown antzerkia Beatriz Egizabalen eskutik. Gero luntxa eta **Oxabi taldeagaz kalejira**.

ZORNOTZA antzerkia
'Lorca la correspondencia personal' antzezlana
Histrión Teatroren eskutik, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

ELORRIO musika
Angel Unzu laukote elektrikoaren kontzertua, 22:30ean, Arriolan.

Azaroaren 17an

DURANGO bisita gidatua
'Durango en blanco y negro' bisita gidatua, 12:00etan, Arte eta Historia Museon.

ZALDIBAR ikastaroa
Edertasun kanonei buruzko tailerra, 10:00ean, liburutegi zaharrean.

IURRETA ate irekiak
Etxegoren ate irekiak eta zinea, IU Gazte ekimenaren barruan, 16:00etan, Etxegon.

IURRETA musika
Durangaldeko 4kote taldea, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean, Musikaldiaren barruan.

ABADIÑO antzerkia
'El Bugués Gentilhombre' antzezlana, 19:00etan, Errota kultur etxean.

ABADIÑO musika
'Fausto' film mutuari musika jarriko dio Juan de la Rubiak, 19:30ean, Abadiñoko San Trokaz elizan. Bartzelonako Sagrada Familia basilikako organista eta Kataluniako Musikako Goi-eskolako irakasle denak 'Bizkaiko Hotsak 2018' Bizkaiko XIII. Organo Jaialdiaren barruan joko du.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Kultur etxea zehazteko, hitzaldi sorta antolatu dute Atxondon

KULTURA | Urkuzun baserrian sortuko duten kultur etxea nolakoa izango den zehazteko, herriko talde eta norbanakoei zabalduko parte-hartze prozesua abiatu du Atxondoko Udalak. Azaroaren 21ean (euskaraz) eta 22an (erdaraz) diagnostia egingo dute. Azaroaren 28an (erdaraz) eta 29an (euskaraz) sorkuntza eta programazioa landuko dituzte. Saiok 18:30ean hasiko dira, udal-letxeko batzar aretoan.



BERRIZ antzerkia
'Lorca la correspondencia personal' antzezlan
Histrión Teatrosen eskutik, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

Azaroaren 18an

BERRIZ bertsoak
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa: **Aitor Bizkarra, Imanol Uria, Julen Erezuma, Miren Amuriza, Unai Mendiburu eta Xabat Gallettebeitia**, 17:00etan, herriko pilotalekuan.

ELORRIO antzerkia
'Inondik inora' umeentzako antzezlan, 17:00etan, Arriolan.

DURANGO antzerkia
'Lorca la correspondencia personal' antzezlan
Histrión Teatrosen eskutik, 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

ELORRIO musika
Tobacco Road taldearen kontzertua, 20:00etan, Portalekuan.

Azaroaren 20an

IURRETA berbaldia
Iurretako HAPOaren parte hartze plana: **'Diagnostikoaren ostean gaur egungo egoera' formakuntza-informazio tailerra**, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA zine-kluba
'Invitación de boda' filma, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 21ean

DURANGO musika
'Aida' aurrez grabaturiko opera, 20:00etan, Zugaza zineman.

Azaroaren 22an

DURANGO hitzaldia
'Etorkinekiko zurrumurruak Euskadin. Aurka egiten diezu ala harrera egiten diezu?' 18:30ean, Elkartegian.

MALLABIA aurkezpena
'Emilio Pradera, gure melodia' liburuaren aurkezpena, 19:00etan, Kontzejuzarrean.

ZORNOTZA ikastaroa
Irrintzi hastapena ikastaroa, **Euskal Herriko doinuak jardunaldien barruan**, 19:00etan, Etxanoko eskoletan.

ZORNOTZA musika
Elkano Browning Cream, 20:15ean, Zelaietan.

Azaroaren 23an

ZORNOTZA erakusketa
Musika tresnen erakusketa, 18:00etan, Etxanoko eskoletan asteburu guztian zehar.
'Txalaparta hutsa' kontzertu didaktikoa, Hutsunen eskutik, 20:00etan, frontoian.

Azaroaren 24an

DURANGO musika
Juan Carlos Irizarren piano kontzertua, Arrupe Aretoan, Jesuitak ikastetxean.

ZORNOTZA jaialdia
Tarrañuelak eta kañaberak ikastaroa, Iker Diezen eskutik, 11:30ean, Etxanoko eskoletan.
Txalaparta, adar eta perkusio tresnen erakusketa eta salmenta, Jotzen Perkusioak eta Juan Antonio Alañaren eskutik, 12:00etan, Etxanoko eskolan.
Bazkari herrikoia, 14:30ean, frontoian.
Bazkalostean, kantaldia Eneko eta Markelegaz, eta dantzaldia Kittugaz. 'Txalaparta eta adarra' umeentzako tailerra, 17:00etan.
Hots-Larretan kontzertua: Juan Mari Beltran hirukote formatuan, Ixiar Jauregi eta Errege Beldagaz, 20:00ean, Etxanoko elizan.

Azaroaren 25ean

ZORNOTZA ikastaroa
'Txalaparta eta adarra' hastapen ikastaroa helduentzat, 11:00etan, Etxanoko eskoletan.
Euskal Herriko Doinuak jarduenaldien barruan, antolatuta.



Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **El Cascanueces**
barikua 16: 18:15
domeka 18: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Los crímenes de Grindelwald**
barikua 16: 19:00/22:00
zapatua 17: 17:00/19:45/22:30
domeka 18: 17:00/20:00/21:30
astelehena 19: 18:30/21:00
martitzena 20: 20:00
eguaztena 21: 20:00

• **Malos tiempos en el Royale**
barikua 16: 19:00/22:00
zapatua 17: 17:00/19:45/22:30
domeka 18: 17:00/20:00
astelehena 19: 18:30/21:00
martitzena 20: 20:00
eguaztena 21: 20:00

• **El Desentierro**
barikua 16: 19:00/22:00
zapatua 17: 19:45/22:30
domeka 18: 18:30/20:30
astelehena 19: 18:30/21:00
martitzena 20: 20:00

• **Condorito**
zapatua 17: 17:30
domeka 18: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **El árbol de la sangre**
domeka 18: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **El fotógrafo de Mathausen**
zapatua 17: 19:30/22:00
domeka 18 20:00
astelehena 19: 20:15

• **Small foot**
zapatua 17: 17:00 (euskaraz)
domeka 18: 17:00 (gaztelaniaz)

“Liberazio bat izan da 'El Redil de los Cobardes' egitea, beti gura izan dut-eta gai horri buruz zerbait idatzi”

Artista mugitua da Xabier Alconero gaztea; diziplina batetik bestera jauzi egiten du, kontatu gura duena ahalik eta formatu interesgarrienean kontatzeko



Xabier Alconero Martín
Sortzailea

Barakaldo | 1990

Rapeatzen duzula ikusi dut. Bidea Wurratzeko asmoa duzu?

Bai, rapeatu izan dut inoiz, baina rapa egin baino, poesia idazten dut. Egiten dudana guztitik hori izango da, beharbada, gutxien erakusten dudana. Niretzat gordetzen dut. Agian liburu batean aterako dut inoiz, baina oraindik ez, oso pertsonalak direlako, eta denborak ematen duen perspektiba hori behar dut hurbileko jendeari erakusteko. Ezezagunei erakustea berdin zait, baina publiko egiterakoan, hurbilekoek irakuri egingo dute.

Nola konpontzen zara hain sortzailea izateko hainbeste diziplinatan?

Beti izan naiz sortzailea. Beti izan dut gustuko istorioak kontatzea eta sentimenduak transmititzea. Diziplina ezberdinak jorratzeak aukeren abanikoa zabaltzen du, eta, bide batez, sasoiaren egoten laguntzen dit. Istorio batzuk hobeto kontatzen ditut koadro batean, beste batzuk film labur batean eta beste batzuetarako poesia behar dut.

Nondik bideratu gura duzu zure ibilbide artistikoa?

Akademikoki, eskultura eta gidointzaren goi mailako ikasketetan zentratu gura dut. Lan munduari dagokionez, marrazki bizidunen web sail batean, film luze batean eta mahai-joko baten sorkuntzan egingo dut lan. Proiekturen bat erdibidean geratu daiteke, oso mugitua naizelako. Normalean ez dizkiot urte bi baino gehiago eskaintzen ikasketa edo lan bati, eta berdin gertatuko zait diziplina artistikoekin. Alor batean bidea egin ostean, aspertu egiten naiz. Gauza berriak ikasi eta beste batera jauzi egiteko gogoia izaten dut. Baina gero beti itzultzen naiz diziplinetara.

Zerbait gehitu gura duzu?

Gaitza da zinera, idaztera edo arte plastikoetara dedikatze denbora ateratzea. Oro har, sorkuntza artistikoa esker txarreko lana da. Aldi berean, medio hauen bidez adierazi gura dugunontzat denbora ateratzea ezinbestekoa da. Sariak lortuta edo lortu barik, bizitza osoan egingo dudana zerbait dela uste dut. Honela imajinatzen dut neure burua zahartzaroan: atarian egurrezko zati bat zizelkatzen, koadro bat margotzen edo liburu bat idazten.

IKUS-ENTZUNEZKOAK • ARITZ MALDONADO Xabier Alconero pozik dago 'El Redil de los Cobardes' film laburra izandako harreragaz. Sortzaile durangarrrak hainbat diziplina jorratzen ditu eta ikus-entzunezkoen mundura itzuli da film labur honegaz.

Hainbat sari jaso dituzu 'El Redil de los Cobardes'-egaz.

Egia esan, oso pozik nago. Ez nuen uste hain umila eta pertsonala zen proiektu batek horrelako harrera izango zuenik. Zazpi sari jaso ditu, eta 30 izendapen. Jaso dituen azken sariak L-Lidoscopi jaialdiko eta Buenos Aireseko FICAB nazioarteko jaialdiko izan dira. Berriki esan digutenez, Txileko Santiagoko eta Mostra Quaestio nazioarteko jaialdietan egongo gara, eta Soriako jaialdian ere bai.

Proiektuaren zein balorazio egiten duzu?

Pozik nago, arrazoi bigatik. Alde batetik, gidoiagaz. Ikuspuntu ezberdin batetik abiatuta, istorio

konkretu bat kontatzeko eta guztiok identifikatuta sentitzen garen ideia bat transmititzeko gai da. Konplexua da, gainera. Norabide ezberdinetan adarkatzen da, eta gero klimax berean egiten du bat. Betidanik idatzi gura izan dut gai honetaz, baina orain arte ez dut topatu konbentzitzen ninduen ideia edo tonua. Hori dela eta, liberazio bat izan da dokumentala egitea. Hala ere, alde teknikoetik ahalegin pixka bat gehiagogaz emaitza hobea lortuko nuelakoan nago. Aran-

“**Pozik nago lanak izan duen harreragaz; zazpi sari jaso ditugu eta beste 30 izendapen inguru**”

tza hori gelditzen zait. Une honetan ikus-entzunezko, literatur eta arte plastikoetan nabil lanean, eta film luze baterako eta marrazki bizidunen sail baterako gidoiak egiten.

Bere garaian film luze batean zentzuz lanean. Ze fasetan dago proiektua?

Film luze hori 2010ean grabatu nuen, baina ikasketa eta lan kontuengatik muntaia fasean albo batera utzi nuen. Pelikula amaitzeko, beharrezkoa den guztia grabatuta dago, eta irudiak gordeta ditut. Askotan pentsatu izan dut amaitzea, eta hiruhileko bat eskaini ahal diodan unean amaituko dut, emaitzaz oso harro ez nagoen arren. Editatu barik ikusi duten lagunek interesgarria dela diote, gidoiari dagokionez behintzat. Teknika eta interpretazio aldetik pixka bat hankamotz dago. Amaituz gero, YouTubeera igo eta sare sozialen bidez zabalduko nuke. Uste dut lan ausarta eta nahiko zoroa dela, eta barre batzuk eragin ditzakeela;

beharbada beste batzuei ez zaie gustatuko. Bihozkada dut Durangaldea [bertan dago grabatua] irauli eta entretenitu dezakeela egun batzuez.

Grabatuak ere egiten dituzu. Nondik datorkizu zaletasuna?

2016 amaieran hasi nintzen grabatuekin. Erakusketarik garrantzitsuenak Bulgarian, Belgikan eta Luxenburgon egin ditut. Horrez gainera, Bilboko FiGeko Open Port Foliorako eta Madrileko Arte Joven zirkuiturako hautatu ninduten.

“**Oso mugitua naiz eta normalean ez dizkiot urte bi baino gehiago eskaintzen ikasketa edo lan bati**”

Federico Garcia Lorcaren alde biak Zornotzan, Berrizen eta Durangon

'Lorca, la correspondencia personal' antzezlanak ikusgai egongo da asteburuan



Lorcaren dualtasuna islatzen du obrak.

ANTZERKIA • A.M.

Federico Garcia Lorca poeta espainiarraren alderik intimoena ezagutzeko aukera hirukoitza egongo da asteburuan: gaur barikua, hilak 16, Zornotzan; zapatuan, azaroak 17, Berrizen, eta domekan, azaroak 18, Durangon. Gema Matarranz eta Alejandro Vera aktoreak Lorcaren azalean sartuko dira, eta honek bere senideei idatzitako gutunetan ardatzen da *Lorca, la correspondencia*

Garcia Lorcaren alderik intimoena ezagutzeko aukera hirukoitza egongo da asteburuan

Gema Matarranz eta Alejandro Vera aktoreak sartuko dira Lorca poetaren azalean

personal. Juan Carlos Rubioren gidaritzapean, Lorcaren dualtasuna agertuko dute oholta gainean. "Poetikoa bezain alai eta iluna, mingotsa bezain gozoa", deskribatu dute. Lorca berarengan ere hain ohikoa zen bezala. Histrión Teatro konpainiaren obra da hau.

Emanaldien ordutegiak *Agenda* atalean daude.

Gai librea

Josune Aranguren Zatika
Filosofa



Welcome eskuliburua

Pentsatu eskuliburu bat idatzi behar dugula gure artera datozenei emateko eta bertan Euskal Herriak eman eta eskatuko dienaz nahi bezain luze jardun dezakegula. Zerbitzu sozialek egiten dute, baina pertsona jakinen premietara egokituta egin ere. Gure asmoa bestelakoa litzateke eta bizikide berri horiez gain Erasmus beka bati esker gure artean ikasturtea emango duenak, enpresaren egitasmo berria garatzera sasoi batera datorrenak, turistek (hitzak barnean hartzen baititu etorkin ilegalak) eta arrazoia edozein dela medio bizikide izango ditugunek irakurri eta barneratuko luketen eskuliburua ari gara idazten.

Erabaki dezagun, beraz, zer jaso eskuliburu horretan. Oinarrizko zerbitzu sozial eta antzekoei buruzko orrialdeez gain, adostu dezagun zertaz idatzi. Euskaraldia? Erasoaren inguruan gizona "zuria" izatea aipatu izanaren inguruko eztabaida? Oñatiko migratzaileen zentzua eredu garrantzatu aipatzen dela? Eskoletako kurrikuluak pixkanaka zeharkatzen duen aniztasunaz zer ulertzen dugun? Etorri-berria Halloween gaueko ikaratik sendatu gabeko MTV Sariekin gozaten ari den Black Friday-rako bidean doan herri batera heldu dela jabetuko da berehala, eskuliburu beharrik gabe.

Badakit leku batzuetan egiten dela eta etorri-berriari harrera egitean argi azaltzen zaiola zein den gizarte haren printzipio gidaria, kultura harrotasunez erakusten zaiola eta horretara baldintzatzen dela onarpena eta osteko elkarrekin eraikitzea. Globalizazioaz eta migrazioaz identitatearen eraikuntzatik hitz egiten duenik ez dut entzuten.

<http://josunearanguren.blogspot.com/>

Kalitatezko eskaintza abadiñarren eskura jarri gura du Antzerkiñok

Martxan da Abadiñoko antzerki jaialdiaren laugarren edizioa; sarrerak 3 euroan daude



Un Burgués Gentilhombre.

ANTZERKIA • A.M.

Zapatuan Alhama talde nafarrak *Un Burgués Gentilhombre* komedia aurkeztuko du Errota kultur etxean. Azaroaren 24an *La Ópera de los Suburbios* antzeztuko du Kilarrak taldeak. Abenduaren 1ean, Muládarra konpainiak *INI CE* obra antzeztuko du. Afrikaz maitemintutako zazpi emakumek prestatutako dantza eta musika ikuskizuna da hau. 19:00etan hasiko dira obra guztiak.

Zortzi euroko bonua

Antzerki guztietara joateko, 8 euroko bonua dago salgai. Bestela, obra bakoitzaren sarrera 3 eurokoa da. Azaroaren 10ean abiatu zen Antzerkiñoren 4. edizioa, Huts Teatro taldearen *Hozkailua* lanagaz.

www.plateruena.eu

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

PUB QUIZ
Azaroak 23 · 21:30ean
Lehiaketa

SU TA GAR
Azaroak 24 · 22:00etan
Kontzertua

JAM SESSION
Azaroak 30 · 21:30ean
Jam Session

Lorca, la correspondencia personal

Histrión Teatro

Azaroak 18, domeka
19:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO URSULA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eu

"Gazteak ez dira berriak, baina benetan gogor jo dute aurtengo Bizkaiko Bertso Txapelketako atea"

Bizkaiko Bertso Txapelketako lehenbiziko finalurrekoa Berrizko pilotalekuan izango da; hitzordua domekan izango da, azaroak 18, 17:00etan



Miren Amuriza aurreko Bizkaiko Txapelketan.

borrokatuko naiz, baina bestelako lehentasun batzuk ere izan ditut aurtan", gaineratu du.

Txapelketako saio batzuk ikusi ostean, bertsolari berriztarrak argi du belaunaldi gazteagoen unea dela. "Ez dira berriak, baina oraingo honetan gogor jo dute atea gazteek", esan du. Beragaz batera finalurrekoan abestuko duten Bizkarra eta Mendiburu nabarmendu ditu Amurizak. Maila emango dutela uste du berriztarrak, eta hainbatek euren lekua egingo dutela finalean. "Orain artean, sarri tokatu zait entzutea belaunaldi berrien kontua, baina oraingo honetan beste aldetik entzutea tokatzen zait, eta horrek zer pentsatua ematen du".

Durungaldeko bost

Eskualdeko bost bertsolarik abestuko dute Bizkaiko Bertso Txapelketako finalurrekoetan. Amuriza bezala, 2016ko txapelketako finalera heltzeagatik egongo da Beñat Ugartetxea Igorreko finalurrekoan. Eneko Abasolo 'Abarkas'-egaz batera abestuko du; Santurtziko saioan 460 puntu poltsikoratuta lortu zuen txartela iurretarrak. Txaber Altube abadiñarrak Zornotzako saioa irabazita lortu zuen sailkapena. Abenduaren 1eko finalurrekoan egongo da, Lekeition.

BERTSOLARITZA • A.M.

Asteburuan abiatuko da Bizkaiko Bertso Txapelketako finalurrekoen fasea. Lehenbizikoa Berrizen izango da, domekan. Etxean ekingo dio txapelketari, beraz, Miren Amuriza berriztarrak. Orain urte biko txapelketako finalista izatea-

gatik, aurtengoan zuzenean sailkatu da finalurrekoetara. Beragaz batera Aitor Bizkarrak abestuko du. Plentziako saioa irabazita lortu du sailkapena abadiñarrak

Bizkarrak eta Amurizaz gainera, Imanol Uriak, Julen Erezumak, Unai Mendiburuk eta Xabat Ga-

lletebeitiak abestuko dute. Saioa 17:00etan izango da, Berrizko pilotalekuan. Begoñe Olabarria arituko da gai jartzaile lanetan.

"Hurbildu ahala, estutzen"

Gogotsu dago Miren Amuriza domekako saiora begira, lehiatzen

hasteko gogoz. "Orain artean lasai egon naiz, baina data hurbildu ahala estutzen hasi naiz", adierazi du. "Hori ona dela uste dut, gainera, niretzat garrantzitsua den seinale". Finalera heltzea helburu duen arren, lasaiago ere badagoela onartu du berriztarrak. "Finalera heltzeko

Zapatuan saltokia ezarriko du Gerediaga elkarteak Astolaren ale berria ezagutarazteko

Hamabigarren alea du historia eta ikerketa uztartzen dituen aldizkariak; idatzizko zortzi lanek osatzen dute aldizkaria

MUSIKA • A.M.

Astola aldizkariak hamabi urteko ibilbidea egin du aurtengo ale berriagaz. Durungaldeko ikuspegi patxadatsua eman ohi du argitalpenak. Hamabigarren ale hau zortzi lanek osatzen dute. Eskualdeko hainbat lagunek osatu dituzte artikuluak. Joseba Gorostizak, adibidez, Durungaldeko antzerki-gintzari buruz idatzi du. Bestalde, Garazi Arrizabalagak Jose Manaut margolari valentziarra Durangon konfinatuta egon zela idatzi du. An-

der Berrojalbizek ikerlariak 1465. urtean Bohemiako noble batzuek Durango zeharkatu zuteneko kronikak dakartza, eta Markel Onaindia ANBOTOk kazetariak eskualdean hondakinak birziklatzeko egiten den ahaleginari buruz idatzi du.

Eskualdeko hainbat herritan dago salgai Astola aldizkaria, bost euroan. Durangoko Azokan ere egongo da eskuragai, Gerediaga elkartearen erakusmahaiagaz batera.



Durangoko Azokan ere egongo da Astola.



Nagusien taldeko Leire Urionaguena ligako partidu batean, aurkarien artetik jauzi egin eta atera errematatzeko uanean.

Ibaizabal, Durangon apurka izena egiten ari den eskubaloia kluba

Aurten 10 urte bete dira Ibaizabal kluba sortu zutenetik. Federatutako taldeak eta eskoletakoak kontuan hartuta, 90 bat gazte dabilta eskubaloia praktikatzen Durangon

ESKUBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Urterik urtera eskubaloiak gero eta oihartzun handiagoa du Durangon eta, hein handian, Ibaizabal eskubaloia taldeak egiten duen lanari esker da. Orain 15 urte San Jose Jesuitak ikastetxean abiatutako abentura bederlatzi taldetan gorputzuta dago gaur egun, euretatik lau federatuen mailakoak. Talde denak kontuan hartuta, 90 neska dabilta astero eskubaloia praktikatzen.

Gero eta jende gehiagoren ahotan dabil eskubaloia, eta Ibaizabaleko kideak horretaz ohartuta daude. "Aurreko batean horixe komentatzen ibili ginen geure artean. Jesuitetan gaztetxoek kalean jokatzen dute eta euren gurasoen

bat. Askotan Ibaizabaleko jokalariek entrenatzen dituzte. Gustura egiten duten lana da, etorkizuna zizelkatzen ari direlako. "Hainbeste gazte ibiltzeak beldurra kentzeko balio du. 'Gu joaten garenean zer gertatuko da?' izaten da klubaren ardura sarritan, baina jokalariek kopuruak erreleboa bermatzen du. Hori ikustea oso motibagarria da guretzat eta lanean jarraitzeko indarra ematen digu", onartu du Bereinkuak.

Harrobiko lanak kluba indartzen du. Gaztetxoek adinean aurrera egin ahala, Ibaizabalek gero eta talde gehiago ateratzeko ahalmena du. Aurten lau talde federatu dituzte. Bi kadeteetakoak dira eta euretako bat berria da.

15 urteko lanaren fruitua

San Jose Ikastetxean erein zuten hazia orain 15 urte. Hantxe hasi ziren lehenengo neska gazteak eskubaloian. Harrezkero, emakumeen eskubaloia hazten eta hazten joan da. Ibaizabal kluba 2008an sortu zuten, kadete adinera heldu ziren gazteei tokia egiteko. Beraz, aurten hamargarren urteurrena ospatzen dabilta. Gazteak nagusitu zirenean, senior mailako taldea sortzeko unea heldu zen, 2013an. Denboraldi hartan kadeteek klubeko lehenengo titulua irabazi zu-

ten Basaurin jokatutako finalean eta, ondorioz, Euskal Ligako talde bihurtu ziren.

Nagusiak, bolada onean

Nagusien taldeak indartsu hasi du Bizkaiko liga. Orain arte jokatutako lau partiduetatik hiru irabazi di-

"Jokalariek kopuruak erreleboa bermatzen du. Hori ikustea oso motibagarria da"

"Gogotsu gabiltza, talde oso ona daukagu eta ez dugu mailaz igotzea baztertzeko"

tuzte eta bat berdindu. Porrotik ez, oraingoz. Saillapeneko bigarren postuan daude. "Iaz hirugarren geratu ginen eta igoyeraren atarian geratu ginen, mailaz talde bi igotzen direlako. Aurreko urteetako emaitzak ikusita, gogotsu gabiltza aurten. Talde oso ona daukagu eta ez dugu mailaz igotzea baztertzeko", dio Bereinkuak, baikor.



Gazteek nagusiekin jokatzen dute, txandaka.



Kadeteetako bigarren urteko taldea.



Kadeteetako lehenengo urteko taldean mutil bi dabilta.

inguruan ibiltzen dira. Jendeak ikusi egiten gaitu eta hori igarri egiten da. Ibaizabalek klub moduan izena hartu du, zalantzarik barik", adierazi du Irati Bereinkua nagusien taldeko jokalariek. Jesuitak ikastetxean lau talde dituzte aurten, eta Kurutzia ikastolan,

"Jendeak ikusi egiten gaitu. Ibaizabalek klub moduan izena hartu du, zalantzarik barik"

“Tropelean aurrerago egon naitekeela erakutsi gura diot neure buruari”

Ziortza Isasi elorriarra Enecue talde berriko txirrindularia izango da 2019an; pistan, ostera, Eustrak-Euskadi taldeagaz jarraituko du datorren denboraldian



Ziortza Isasi Cristobal
Enecue talde berriko
txirrindularia

Elorrio | 1995

TXIRRINDULARITZA • M.ZUAZUBISKAR
Eneritz Iturriaga txirrindulari ohi abadiñarra talde berria eratzen dabil datorren urtera begira. Enecue taldea izango da, Leonen izango du egoitza eta Ziortza Isasi elorriarra talde horretako txirrindularia izango da.

Datorren denboraldian Enecue taldean egongo zara. Nola sortu zitzazun aukera?

Eneritzegaz eta bere senar Humbertogaz beti izan dut harremana. BZK eta Baque taldeetan eurekin egon nintzen eta oso gustura aritu nintzen. Enecue talderako gura nindutela esan zidatenean ez nuen birritan pentsatu. Niretzat aukera bikaina izan daitekeela uste dut.

Taldeak egoitza Leonen izango duen arren, zuretzat etxera bueltatzea lez izango da?

Taldea Leonekoa den arren, etxe-ko jendea izango dut inguruan, taldeko zuzendariak etxeokak lez dira niretzat eta giroa ere etxeokak izango da. Talde baten babes hori edukitzea ezinbestekoa da niretzat.

Oraindik gauza gutxi jakin dira taldearen inguruan. Zuk dakizunaz...

“**Taldea Leonekoa den arren, etxe-ko jendea izango dut inguruan. Zuzendariak etxeokak lez dira niretzat**”

rengatik, nolako taldea izango da?

Zerbait handia egin gura dela uste dut. Taldearen helburu nagusienetarikoa nazioartean lehiatzea izango delakoan nago. Hala ere, hasieran zaila izango da, talde berria izango da eta.

Etorkizunera begira dagoen taldea dela esango zenuke?

Aurten, taldea finkatu eta tropelean ezagutarazi beharko dugu. Oraindik berria da, ez da ezaguna, eta, beraz, aurten oinarri bat ezartzea izango da helburua, ondoren aurrera egiteko.

Txirrindulari ohi bi izango dituzue zuzendari: Eneritz Iturriaga eta Iñigo Cuesta.

Ondo dakite biek zer den txirrindularia izatea, tropelean egotea... Be-

raz, hori aldeko izango dugu. Gainera, taldeari izena emateko ere ezinbestekoa da euren presentzia.

Eneritz lehendik ere izan duzu zuzendari. Nolako da?

Zuzendari moduan hasi zenean, txirrindulari mentalitatea zuen oraindik. Diziiplina handiko emakumea zen. Baina gero ikusi zuen oraindik gazteak ginela eta asko genuela ikasteko. Eneritzek beti eman du dena guri laguntzeko.

Zein izango da zure rola?

Taldearentzat lan egitea. Euskal Herriko eta Espainiako lasterketetan ahalik eta aurreren ibiltzen ahaleginduko naiz eta nazioarteko lasterketetan, ostera, taldearentzat lan egingo dut.

Ze helburu dituzu 2019rako?

Ikasketak amaitu ditut eta bizikletan buru-belarri zentratuta nago. Tropelean aurrerago egon naitekeela erakutsi gura diot neure buruari.

Errepidean aritzeaz gain, belodromoan ere bazabiltza. Taldeak arazorik jarri dizu biak uztartzeko?

Printzipioz ez didate inongo eragozpenik jarri. Gainera, orain arte bezala jarraitu gura dut, biak uztar-

“**Iztarte inguruan kolpe gogorra hartu nuen, nerbioren bat harrapatu nuen eta hankak lokartuta ditut**”

tzen. Helburuak modalitate bietan ezarri gura ditut.

Irail amaieran, pistako Espainiako Txapelketan, eroriko bat izan zenuen eta errekupeazioa espero baino luzeago joan zaizu.

Jausi nintzenez hainbat zauri egin nituen eta saihestetan kolpe handia hartu nuen. Hala ere, ez zen hori izan txarrena. Iztarte inguruan kolpe gogorra hartu nuen, nerbioren bat harrapatu nuen, eta orduz geroztik hankak lokartuta ditut. Hiru hilean horrela eduki ditzakedala esan didate medikuek. **Noiz ikusiko zaitugu berriro lasterketa batean?**

Abenduan berriro ere Eustrak-Euskadi taldeko kideekin belodromoan bueltaka ibiltzea espero dut.

Jokaldia

Eneritz
Iturriaga Mazaga
Txirrindulari ohi



Gustuko tokian aldaparik ez
Horrela dio esaera zaharrak, bai. Orain ere, gure burua, bi gurpilaren artean ibiliko da.

Dakizuenek, bizikleta utzi eta lanean (nutrizio kontuetan) hasi eta gero, asteburuak libre genituela eta, neska gazteekin lasterketetara joaten hasi ginen, nire esperientziatik abiatuta, eurei laguntzen eta erakusten. Baina orain dela urte eta erdi, Carlotta alaba etorri zen gure mundura eta denbora guztia berarentzat hartu genuen, oso alaba desiratua baitzen! Baina, beti... zeozer faltan.

Beraz, aurten proiektu berri bat eraiki dugu, Humbertok eta biok Iñigo Cuestagaz batera. Txirrindularitza munduan, beste ikuspuntu eta beste diziiplina bat eraiki nahi genuen, bai txirrindulariei eurei dagokienez eta baita taldeen ikuspuntu profesionalek ere, baina benetako ikuspuntu profesionalek. Hau da, taldeko neskek benetako laguntzak eduki zitzatela, txirrindularitza modu serioan egiteko. Hori baita hemen falta dena, seriotasuna.

Urte biko epealdia jomuga moduan jarri eta lanean hasi ginen. Udan oso albiste onak eduki genituen eta Leoneko Udalaren eta beste babesle batzuen eskutik, 2019rako taldea egiteko eskatu ziguten. Harrezkero jo eta ke gabiltza lanean. Izan ere, talde profesionalak Leonen edukiko du egoitza, baina oinarri guztia (gaztetxoak, 10-19 urte artekoak), Euskal Herriaren izango da. Azkenean, talde eta babesleen interesa ikusi eta aurrera jotzea aukeratu dugu. Momentuz, hori bakarrik esan dezaket. Oraindik lan asko dago egiteko! Argi dago proiektu hau 4 urterako dela eta lortuko dugula emakumezkoen txirrindularitza desberdin bat edukitzea. Beharra baitago.

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzalearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian

@anbotokomunikabideak
@anboto
anboto komunikabideak

Eskualdeko zortzi futbolarik Genuine Liga jokatu dute Athletic egaz

Mikel Olaso eta Alberto Hermoso abadiñarrek lehenengoz jokatu dute Athletic egaz



Asteburuan Tarragonara bidaiatuko duten eskualdeko futbolariek Lezaman, eguazteneko entrenamendu saioan.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Genuine Ligan parte hartzen duen Athleticen taldea beste denboraldi baten hasieran dago eta aurten Durangaldeko inoizko jokalaririk gehien daude taldean: zortzi gutzira, iaz baino bi gehiago. Geu Be elkarteko Mikel Olaso eta Alberto Hermoso abadiñarrek dira esperientzia lehenengoz biziko duten jokalariek.

Beste seiek badakite Athleticen kamiseta defendatzea zer den, iaz ere taldean izan ziren eta. Saioa Ortiz berriztarrak, Sergio Vadillo abadiñarrek, Javi Nuñez eta Suzette Amilibia elorriarrek, Aitor Alberdi zaldibartarrak eta Josu Uriguen zornotzarrak bigarren urtea egingo dute Athletic taldeagaz.

Asteburu honetan Tarragonan (Katalunia) hasiko dute aniztasun funtzionala dutenei bideratutako futbol liga. Lehen jardunaldirako, eskualdeko lau jokalariek daude deialdian: Ortiz, Vadillo, Nuñez eta

Saioa Ortiz, Javi Nuñez, Sergio Vadillo, Suzette Amilibia eta Aitor Alberdi ere taldean daude

Ligako lehenengo jardunaldia asteburu honetan jokatu dute, Tarragonan

Hermoso. Jokatu dituzten partiduen artean bat berezia izango da: Eibarren kontrako euskal derbia.

Genuine Ligako bigarren denboraldia indartuta dator. Asteon egindako aurkezpenean adierazi dutenez, 12 talde berri izango ditu eta 30 taldera helduko da.

Athletic, joko garbian onena

Athleticek Fair Play edo jokorik garbienaren saria irabazi zuen iaz, zelai barruan erakutsitako jarrera onagatik. Ondoren, irabazitako garaikurra zaleei eskaini zieten urri amaieran. Talde nagusiak Valentziaren kontra jokatu behar zuen partiduen atarian, San Mameseko berdegunera irten ziren, milaka zaleren txalo artean.

Gazteetako promesarik onena da Jon Gisasola, bigarrenz

Euskal Herriko kintopeko txapelketa irabazi du harri-jasotzaile mallabitarrak, eta iazko txapela berri du

HARRI-JASOTZEA • J.D.

Harri-jasotzaile gazteen artean nabarmentzen ari da Jon Gisasola. Iaz 21 urtez azpiko, kintopeko, Euskal Herriko txapelketa irabazi zuen eta aurten txapela berri du. Loio jokatu zen finala, joan zen zapatuan, eta mallabitarrak 47 altxaldi eginda menderatu zituen aurkariak.

Aritz Etxeberria 'Ureta' geratu zen bigarren, lau altxaldi gutxiagaz, eta Iratitz Arrutik osatu zuen podiuma.



Sonia Casas alpinistak zabalduko du Elorrioko Mendi Asteko hitzaldi sorta

MENDIA • J.D.

Sonia Casas bilbotarra goi-mendiko eta eskaladako gidaria da, estatuan dagoen emakumezko bakarrenetakoa, eta astelehenean bere esperientzia zabalaren berri emango du Elorrioko Mendi Asteko hitzaldi sorta. Martitzenean, berriz, Jon Garatek eta Joseba Elustondok Patagonian egindako eskalada saioei buruz jardungo dute. Berbaldi biak 19:30ean hasiko dira, Iturri kultur etxean. Eguaztenean beste eskalatzaile bat izango da protagonista: Mikel Zabalza. Karakorumen bizi izandako abenturak kontutako ditu, 19:30ean, gaztetxean. Horrez gainera, datorren asteko barikuan, 19:30ean, Aitor Arbulu mendizaleak *Expect the unexpected* bideolana aurkeztuko du Iturrin.

Gorka Otaduy Olazar pilota txapelketako final laurdenetarako sailkatu da

PILOTA • J.D.

Gorka Otaduy berriztarrak Zaldibarko Olazar txapelketako final-laurdenak jokatu ditu binaka. Arrietak eta biek joan zen astean lortu zuten horretarako eskubidea, partidu serio batean Egiguren eta Aldabe 22-9 menderatuta. Azaroaren 30ean jokatu dute finalerdietara sailkatzeko partidua.

Hilaren 22ko partidurak

Final-laurdenetako hurrengo partidurak datorren egunean jokatu dituzte, 21:30ean. Kaiolan Agirremalloak eta Osak neurtuko dituzte indarrak. Binakako partiduan Prietok eta Etxebarriak Kanabalen eta Arri-zabalagaren kontra jokatu dute. Irabazleak finalerdietarako sailkatuko dira.

Asteko kirolaria



MIRIAM SANCHEZ PEÑA

Zaldibar, 1998

“Azken hiru partiduetan nor garen eta benetako Elorrio zein den erakutsi dugu”

Bolada txarrari buelta emanda, azken hiru neurketak irabazi egin ditu Elorrio futbol taldeak

zulotik sailkapenaren erdira egin dute salto. Aurrean fin dabilta eta Miriam Sanchez atezainak gol bat baino gehiago ekidin du bere geldiketekin.

Zeren ondorioa da azken asteetako erreakzioa?

Azken hiru partiduetan nor garen eta benetako Elorrio zein den erakutsi dugu. Intentsitateagaz eta lanagaz geu izatea lortu dugu eta hortik heldu dira garaipenak.

Barne hausnarketa bat egin duzue?

Astero egiten ditugu hausnarketak, partiduro. Baina, bai, lau partidu jarraian galdu genituen, inflexio puntu bat izan zen guretzat. Horrela ezin genuela jarraitu esan genuen eta gako gu geu ginela konturatu ginen. Gure nortasuna erakutsi behar genuen. **Bolada onak lasaitasuna eman dio taldeari?**

Bai. Ez da berdina lau partidu irabaztearen ondoren edo hiru partidu iraba-

zite entrenatzera joatea. Hala ere, bolada txarrean egon garenean ere ondo entrenatu izan gara. Kontua da gero partiduetan ez zela hori islatzen.

Zure geldiketek badute zerikusirik bolada onean. Gustura zaude?

Hirugarren urtea dut taldean eta oso gustura nago. Elorrio talde desberdina da. Dagoen giro ona eta elkarlana aipatuko nituzke. Taldeak du garrantzia. Denok bat gara eta denok egiten dugu

arraun norabide berean. Eibarren zazpi urte jokatu nuen eta ez zen berdina. Elorriora etortzean alde nabaritu nuen.

Jokalaria ez zik gaztetxoaren entrenatzailea ere bazara.

Orain hiru urte, Zaldibarren gaztetxoak entrenatzeko aukera eskaini zidaten eta pozik onartu nuen. Aurten Zalduek eta Elorriok indarrak batu dituzte nesken taldeak ateratzeko eta ni haur-kategoria-koekin nabil. Uste dut talde biek indarrak batu izana positiboa dela.

Gustatzen zaizu entrenatzea?

Beti esaten dut entrenatzaile barik hezitzaile sentitzen naizela. Eurek ondo pasatzea, nik ikasitakoa irakastea eta balioak transmititzea ditut helburu.

Liga hasiera kaskar baten ostean, Elorrio futbol taldeak erreakzionatu egin du eta hiru garaipen daramatza segidan. Euskal Ligako



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Babes ofizialeko etxebizitza bat salgai. Abadiñon Muntzaratz eta Zelaia artean. Bizitzen sartzeko prest. 85m karratu. Hall-a, 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela, balkoia, garajea eta trastelekua. Tel.: 620-24 66 33

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Durangaidea. Pisu bila nabil lurreta, Durango edo Abadiñon. Lana daukat. Tel.: 632-01 22 61

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel.: 674-51 85 43

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil umeak edo nagusiak zaintzen. Baita garbiketan ere. Tel.: 672-65 46 47

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketan ere. Barneko, kanpoko, ordukako edo gauetako langilea. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Emakume arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan egoten ere. Barneko zein kanpoko langilea asteburuetan lan egiteko prest. Berehala hasteko moduan. Tel.: 631-92 55 25

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua nagusiak zaintzen lan egiteko prest. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 698-69 61 94

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen etxe zein ospitaleetan. Baita eraikuntzan edo mendiko lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-01 61 86

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen etxe zein ospitaleetan. Baita eraikuntzan edo mendiko lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-30 47 00

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka edo kanpoko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 651-50 86 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauze edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 688-86 07 79 Tel.:631-75 48 19

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Gauze, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-57 28 73

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsonak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Kanpoko zein barneko langilea gauze, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-93 76 13

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Berehala hasteko prest nago. Paperak ditut, baita kurtso bat ere. Tel.: 605-37 89 55

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-71 70 41

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Erreferentzia eta esperientzia ditut. Tel.: 664-82 64 43

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil nagusiak zaintzen. Tel.: 698-50 53 89

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Durangon edo Elorrioren lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 685-39 41 54

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 602-09 39 65

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Berehala lanean has naiteke. Tel.: 622-50 47 11

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-69 85 65

Adimen urritasuna duten umeekin lan egiten dut. Goizetan adimen urritasuna duten umeekin lan egiteko prest nago. Ordu-tegi malgua. Tel.: 625-39 02 48

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Lanaldi erdian edo osoan lan egiteko prest. Eskarmentua daukat. Tel.: 690-68 73 95

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten edo ostalaritzan. Kanpoko zein barneko langilea, gauze, asteburuetan, orduka... lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 631-71 70 41

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketan ere. Gauze lan egiteko ere prest nago. Autoa daukat. Tel.: 632-34 77 31

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-08 80 96

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Erreferentziak ditut. Tel.: 642-65 98 02

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 698-76 08 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea, gauze zein lanaldi erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-64 82 97

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-92 55 25

Lan bila nabil. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo igeltsero moduan. Tel.: 631-01 54 95

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 684-14 15 86

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Berehala lanean has naiteke. Tel.: 631-92 55 25

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko langilea lan bila dabil pert-

sona nagusiak zaintzen, baserrietan. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.:632-51 82 68

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 698-88 10 12

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-42 69 23

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Geriatria, alzheimer eta parkinsonen espezializatutako emakumea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 602-54 11 91

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukako, gauetako edo asteburuetakoa langilea. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 631- 71 70 41

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Gizonezkoa lan bila dabil baserrietan, landa gunean. Baita animaliak zaintzen ere. Tel.: 612-23 27 31

Olentzerorena egiteko prest nago. Gabonetan Olentzerorena egiteko prest nago. Esperientzia daukat. Tel.: 651-36 97 69

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 612-49 25 19

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 602-82 72 84

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Adineko pertsonak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia dut, arduratsua naiz eta erreferentziak ditut. Tel.: 612-49 25 19

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 698-73 33 56

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-92 55 25

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita

garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Eskarmentua dut. Tel.: 688-26 35 70

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo peoi moduan ere. Tel.: 698-87 37 09

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 603-29 07 99

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko edo ordukako langilea. Eskarmentua daukat. Tel.: 698-83 59 16

IRAKASKUNTZA

Klase partikularrak ematen ditut. Euskaldun irakaslea klase partikularrak emateko prest eta umeak zaintzeko prest. EGA eta ingeles titulua ditut. Hainbat urteko esperientzia. Durangaldea. Tel.: 692-71 66 19

LAN ESKAINTZAK

PERTSONAK ZAINDU

Arratsalde umeak zaintzeko pertsona baten bila. Gabonak bitartean arratsalde 10 eta 7 urteko bi ume zaintzeko pertsona euskaldun baten bila gabiltza, Durangon. Tel.: 649563492

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona euskalduna behar dugu. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona euskaldun baten bila gabiltza, Durangon. Tel.:656-73 77 79

Elorrioko Gaztegunerako hezitzaileak behar dira. Elorrioko Gaztegunean lan egiteko hiru hezitzaile behar dira. Lanpostuaren ezaugarriak: Lan hezitzaile eta euskalduna burutzea, nerabezaro garaian dauden gazteekin harreman sortzea eta Gazteguneko dinamika kudeatzea. Beharrezkoa izango da: gutxienez, erdi edota goi mailako titulazioa izatea, EGA edo baliokidea eta gaiarekin lotutako formazio ikastaroak edukitzea. Ordukako lanaldia eskaintzen da, astean zehar koordinazio bilera bat eta bariku, zapatu eta domeketan 17:00etatik 20:30era. Kontratuaren iraupena azarotik ekainera arte. Curriculumak gazteak@txatxilipurdi.com helbidera bidali behar dira.

Botikak

BARIKUA, 16 - 09:00-09:00

IRIGOIEN

Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 17 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL

Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

BALENCIAGA

Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo

etorb. 24 - **DURANGO**

LARRANAGA-BALENTZIAGA

Berio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL

Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 18 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 19 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 20 - 09:00-09:00

BALENCIAGA

EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN

SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 21 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 22 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU

GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.




Zorionak, **Julen**, zure seigarren urtebetetzean etxeko guztion partez. Patxo handi bat eta ez utzi Kantauri itsasoa pulporik gabe.



Eskerrik asko, pirru, gure bizitzak hankak gora jartziagaitik! Zorixonak etxeko danen partez zure lehenengo urtebetetzean.



Eguazten, eguenean... kandelak pastel ganean, izeko Leire batean, lizei handia bestean



Eguaztenien gure amak urteiek bete ebazan. Zorionak eta mosu potolo bana etxeko danen partez.

Eskelak

Edurne Mardaras Aranzeta
- Igor Salterain Alberdiren amama -

Laster arte ezpainetan
itzi dozuz-ta benetan
maite zaitueenak penetan

Berbaroko lankideak



Gure **Jonek** 11 urte bete dauz! Hamaika mosu handi gure neskatala goxoenari etxekoan partez. Oso ondo pasau dezazule zure egunean, laztana



Zorionak, printzesa, zeure bosgarren urtean. Askok maitte zaitugu, segi horrela. Muxu pottolo pillla zuretzako.

ekin
thinking together

**ZURE BAZKIDE GLOBALA BROTXAKETA ETA
HOTZEKO IJEZKETA LANEI IRTENBIDEA EMATEKO**

ekin group
EUROPA AMERIKA ASIA

Ekin S.Coop. Pgno. Arriagane (Barrio Boroa) 48340 Amorebieta (Bizkaia) Spain TEL +34 629.625.096
www.ekin.es

“Izugarri ona da garbantzu eta brokoliagaz egindako hanburgesa”

Barazki-jaleak dira Iratxe eta Ivan Zudaire neba-arrebak, eta eurek prestatu eta jandako plateren argazki eta errezetak erakusten hasi dira 'Power of Zanahoria' proiektu barruan

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Ivanek ez du ez okelarik ez arrainik jaten. Iratxek pauso bat aurrerago eman du eta, begano egin denetik, animalien deribaturik ere ez du hartzen. Kalitateko janariagaz eta animaliarik jan barik osasuntsu elikatu daitekeela uste dute, eta hori erakusteko, tresna bilakatu gura dute 'Power of Zanahoria'. Errezetak zabaltzen dituzte sare sozialetan, gaztelaniaz eta ingelesez. Barazki-jaleak zoriontsuagoak direla uste du Iratxek; Ivanek, berriz, tripa beteta dugunean garela zoritsu dio. Euren esperientziak zabaltzeko blog bat sortzea dute eronka.

The Power of Zanahoria. Zer da izen honek ezkutatzeko duena?

Ivan: Barazki-jaleok ez ditugu bakarrik letxuga, azenarioa eta zerbak jaten. Egiteko errazak eta jateko oso onak diren jakiez elikatzen gara, eta hori ezagutarazi gura dugu. Oso gustuko dut kozinatzea, batez ere barazkiak: izugarri ona da garbantzu eta brokoliagaz egindako hanburgesa, edo azenario eta dilistekin egindakoa.

Plateren argazki eta errezetekin aukera zabala dela erakutsi gura duzue?

Iratxe: Oso ondo jan daiteke animaliarik jan barik, haiek hil, erabili edo ustiatu barik. Hori erakutsi gura dugu. Errezetak ahanzturan ez gelditzeko ere bada. Munduko gizonik indartsuena beganoa da, greziarra.

Ivan: Kirolari asko ere beganoak dira. Marcos Llorente eta Hector Bellerin futbolariak edo Djokovic tenislaria, adibidez. Osasuntsua da barazki-jalea izatea, argal izatearen baliokide ez den arren. Txokolatzeko brownie-ak edo barazki enpanadak kaloria asko dute.

Noiztik zarete barazki-jaleak?

Ivan: Orain 11 hilabete hartu nuen erabakia. Animalien gehiegizko ustiapena mugatu behar dela uste dut.

Iratxe: Ezin dut ulertu inondik inora animaliak hiltzen diren mundua. Osasuntsu nago, ez zait falta ezer. Bost urte dira barazki-jalea naizela.

Urtebete da beganoa zarela, Iratxe. Pauso bat aurrerago eman duzue?

Iratxe: Denetarik dago, baina beganoak ez dugu inolako esplota-

ziorik gura, ez elikadura, ez kosmetiko, ez arropa, ez aisialdi modura. Animaliak gara eta ez dugu beste animaliarik esplotatu beharrik gure ustezko onerako. Ikasketa prozesu bat izan da. Hasieran ez zen erraza izan. Dietistarengana joatea oso garrantzitsua da.

Animalien deribaturik ez duzu erabiltzen.

Iratxe: Ez. Okela eta arrainaz gain, ez dut gurinik, esnekirik, arraultza-

rik, ezirik eta esnerik hartzen. Txokolatea ere ez, esnea badu. Gozoki dendan zerbait hartzea odisea da. Garbigarriei begiratzan diet eta ez dut larrua, artilea edo seta duen jantzirik erabiltzen.

Ez duzue ezer falta?

Iratxe: Ez. B12 bitaminagaz osatzen dugu elikadura. Baina haragi-jaleek ere animalien bidez hartzen dute hori, pentsua horregaz busten da.

Proteinarik ere ez duzue behar.

Iratxe: Okelak proteina osoa du, barazkiek ez. Baina lekaleak proteina piloa du eta arrozagaz batuz, okelarena berdindu zein gehitu daiteke.

Ivan: Beti jan ditugu garbantzuak arrozagaz eta barazkiekin. Barazki-jalea zarela-eta, nahastu egiten dira asko.

Inoiz pentsatu duzue uztea?

Ivan: Oraingo, ez. Baina esana dut gainesfortzu bat eskatuz gero, sufrituz gero, utzi egingo dudala. Esan behar dut guztiaren gainetik errespetua dela gure araua.

Zergatik diozue?

Ivan: Barazki-jale edo begano izatea muturreko jarrerekin lotzen da. Ez da horrela. Gurago dut barazkiak jan, noski! Baina albokoak harburgesa jateak ez dit arazorik sortzen.

Oso sartuta duzue okela jatea?

Ivan: Oso barneratuta! Japonian, Thailandian, Mexikon... barazki piloa jaten dute, gu baino askoz gehiago. Bururatu ere ez zaigu egiten jatordu osoa barazki egitea.

Iratxe: Ogitarteko begetalek gazta, mahonesa, arrautza, urdaiazpiko egosia, atuna... dute (barrez). Gosez geratu garela ere uste dute, baina beteta gaude.

Zein menu eskainiko zenigukete?

Ivan: Azenario kroketa, ahuakate eta tomatedun tostada, eta brokoli wok-a. Gero, pisto enpanada. Postrerako natillak edo arroz-esnea.

Iratxe: Ardo saltsan egindako shiitake perretxikodun bolobanak, entsalada hornitua eta pisto lasagna. Postrerako, kalabaza pastela.

Iratxe (1987) eta Ivan (1981) Zudaire Duñabeitia | Durango

The Power of Zanahoria proiektuaren sortzaileak @thepowerofzanahoria @ofzanahoria

Lau-hortza

Ainhoa Olaso Sopelana Ikkaslea



40

Uste dut bi klasekidek gonbidatu nindutela nire lehenengo asanbladara. Oso ondo gogoratzen dut momentua, guztiz ohartu gabe, aspaldi zebilkidan bulkada.

Eta nola jarri nintzen urduri, saio hartan txandaka izena esate hutsarekin. Badira zenbait ezin diren gauzak, bilerak eta norbera isilik mantendutako denbora...

Beldur gutxi batzuekin, baina heltzen da ezinegona berbalizatzen duzun eguna, burutik pasatakoa (hiru aldiz pentsatu ondoren) besteen aurrean botatzekoa, eta zuk ez ezik, kideak ere istant hori ospatzekoa dela sinesten dutenekoa.

Injustiziei arrazoa bilatzen diegun bitartean, goazen gauza gehiago ulertzeko, beste ikuspegi batetik begiratzeko aukerak garatzen eta indiferentzia galtzen.

Eta bakoitzean gehiago konpartitzen dugu kideekin, eta harremanak estutzen doazen heinean sortzen diren lehenengo minak osatzen joan gara. Hori ere ikasi dugu eta jarraituko dugu, urratsez urrats. Dena doalako lotuta, gu, taldea, proiektua.

Horretarako, beharrezkoa den lana konpromisoz konprenitu dugu, eskuak margoz eta bihotza gogoz beteta, ezpainetan katramilatutako hitzekin aldarriak eta sare berriak sortzen, piztutako asanblada eta bafleetatik, kaleak eta kafeak hartuta, 70eko hamarkadatik eta gaur arte.

40 urtetan, herri eraikuntzan murgildu garen gazte antolakundearen parte garela ohartuta, herabetu gabe datoz bulkada berriak. Ezer ez dugu galtzeko eta dena dugu irabazteko. Gazteok ernai gaude!

Lekuan lekuko egutegia

2019 Durangaldeko egutegia

ABADIÑO Petite / Hezgarri / Abarkateruena
ATXONDO Kiosko Atxondo
BERRIZ Fonda
DURANGO Hitz Liburudenda
ELORRIO Ilargi

GARAI IURRETA Herriko Taberna Urki
IZURTZA Herriko Taberna
MALLABIA Bastida Taberna

OTXANDIO Danoena Taberna
ZALDIBAR Imendia
ZORNOTZA Ayerdi paper-denda



2€

anboto komunikabideak

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak